

GEURE GAIA: Urteko lehenengo ordu aldaketa • KIROLEZ
 KIROL: Rugby taldeak igoera promozioari ekingo dio Unben
 • DANON AHOTAN: Bai Industriari aurkeztu dute • FIRIN
 FARAN: Udalekuetan izena emateko epea zabaltzear dago
 • ELKARRIZKETA: Iñaki Agirre, ekoizlea • GAZTEKITTO:
 Institutuko ikasleen lanak ikusgai • AUZORIK AUZO

632 zkia. EIBARKO ASTEKARIA 2008-III-28



Euskal Herriko Graffiti Lehiaketak bost urte

EUKi

ARTEKARITZA

Toribio Etxebarria, 1 - behea
 943 20 42 99

AUTOAREN ASEGURUA
 preziorik onenean



EIBAR



Residencial
Hiri Erdi
Bizigunea

Eibarko inguru onenean bizi nahi duzu?

Gela bateko apartamentuak 180.000 €-tik

Gela biko etxebizitzak 260.000 €-tik

Ordainketarako erosotasuna eta zure etxebizitza saltzeko konponbidearekin

INFORMAZIOA
ETA SALMENTA

Egogain kalea
(Autobus geltokiaren
ondoan)

943 20 21 99


LANDU
Financiak



Euskara Elkarteak

ARGITARRATZAILEA:

...eta kitto! Euskara Elkarteak

HELBIDEA:

Urkizu, 11 - solairuartera
20600 Eibar

TELEFONOAK:

943 20 67 76 / 943 20 09 18

FAXA:

943 20 28 72

Astekariaren E-MAILak:

erredakzioa@etakitto.com

komunikabideak@etakitto.com

publizitatea@etakitto.com

Elkartearen E-MAILak:

elkartea@etakitto.com

normalizazioa@etakitto.com

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:

Itziar Albizu

Jose Luis Gorostegi

Silbia Hernandez

Koldo Mitxelena

Ekhi Belar

ADMINISTRAZIOA:

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA:

Koldo Mitxelena

ERREDAKZIO-BURUA:

Silbia Hernandez

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:

Jose Luis Gorostegi

ARGAZKI ARLOA:

Leire Iturbe, Silbia Hernandez
eta Ekhi Belar.

HIZKUNTZA ARDURA:

Juan Andres Argoitia

Maidier Aranberri

PUBLIZITATEA:

Itziar Albizu

Belen Ulazia

Tfnoa: 943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA:

Topagunea

BANAKETA-ARDURADUNA:

Ihintza Fernandez

TIRADA:

7.950 ale

INPRIMATEGIA:

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A:

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA:

SS/430/92

ISSN:

1132 - 1679

("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Sail honen helburua ez da euskera irakastea, ezta hiztegi bat egitea ere. Gure gurasoek eta haien gurasoek erabiltzen zuten euskera gogora ekartzea eta berreskuratzea da asmoa. Gaur egunean euskerak esparru guztiak hartu ditu eta gaur egun baino euskaldun gehiago ez da inoiz egon; baina, hala ere, oraindik euskera ez da erabateko komunikazio-tresna: hainbat gauza esatea kosta egiten zaigu, ez dugu gazteleran bezalako erraztasunik eta trebetasunik. Sail honetan euskeraren alde adierazkorra landu nahi dugu, euskerak berez daukan gatzia eta berakatzu berreskuratu. Horretarako aurreko belaunaldietara jo dugu, gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera jatorraren berri jasotzeko.

DUANGUO.- Inon lepotik bizi dena, aprobetxategia. Gaztelerazko **'gorrón'**. "Beti eta alde guztietan, haura duangua".

DUNDURIXO.- Burrundada, durunda. "Belarrixan sartuta daukat ola hartako dundurixua".

DZANGA-DZANGA.- Pausu handia eman ez oinez ibili. "Dzanga-dzanga ekin zetsan bidia eta ordu erdi baiño lehen heldu zan gaillurrera".

IRAKURLEA PROTAGONISTA **eskutitzak**

ZIKLOTURISTENTZAKO OHARRA

Egun gutxi barru, gutun bat eta inprimaki bat jasoko dituzue 2008rako lizentzia berritzeko eskaera egin duzuen zikloturista guztiok. Inprimakia behar bezala izenpetu eta bidal ezazue, lehenbailehen, Gipuzkoako Txirindularitza Elkargora.


Eusko Jaurlaritzaren Dekretu batek eta Euskal Herriko Txirindularitza Elkargoak hala galdaturik, izapide hori ezinbestean egin behar da, zuen lizentziak baliozkoak izan daitezzen. Ohartarazi nahi dizuegu, halaber, inprimakia izenpetuta bidali ezean, ordaindutako diruarekin geratzeko eskubidea dutela.

Gipuzkoako Txirindularitza Elkargoa

asteko esaldiak **HEMEROTEKA**

"Gaztea nintzenean, museoak hutsik egoten ziren eta bakarrik bertako zaintzailea ikusten zenuen, bazter batean lotan. Orain ikaragarriko ilarak sortzen dira eta jendeak bidaiak egiten ditu museo berri bat ikusteko. Zertara doa bertara? Ez dakigu. Desodorante marka bat erosteko gauza gara emakumeak gure atzetik etorriko direlakoan!"
(Eduardo Mendoza, Idazlea)


"Dagokionari: Konpostelako Santiagotik 10 kilometrora pisu altu eta argia salgai, eraiki berria eta kanpora begira. 80 m²koa, egongela handia tximiniarekin, sukaldaria azken aurrerapenekin eta bi bainu oso, bat hidromasajearekin. Gara-je bikoitza eta trasteroa. Prezioa: 140.000 euro. Komunitateko gastuak: hilero 30 euro. Ni Euskadin bizi naiz, eta zu?"
(Maria Domínguez Varela, egunkarian)



EIBARKO UDALA



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA (HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Kutxak diruz lagundutako aldizkaria

'Bai Industriari!' aurkeztu dute

Debege sak, eskualdeko beste hainbat agenterekin elkarlanean, 'Bai Industriari!' ekimena jarri du abian, Debabarreneko industria-sarea bultzatzeko asmoarekin. Programaren koordinatzaileen berbetan, "gure erronka nagusietakoa gazteei industria-enpresak gertu sentiaraztea eta, horrela, gaur egun enpresek hainbat lanpostu betetzeko duten zailtasunari aurre egitea da".

Aste Santu aurretik Debege sako egoitzan egin zuten aurkezpenean azaldutakoaren arabera, "azken urteotan gure enpresek zailtasunak dauzkate Debabarreneko ekonomiaren hauspo izan diren hainbat lanpostu betetzeko. Izan ere, eskualdeko ikastetxeetatik datozen ikasleak ez dira nahikoak inguruan behar diren lanpostuak betetzeko. Biztanleriaren eboluzioa ere ez da bidelagun ona izan eta 2010. urterako, erretiroa hartzen duten 10 langileko bakkarririk 6 egongo dira horiek lagatuko hutsunea betetzeko moduan". Hori aldatzeko asmoarekin, industriak eskaintzen dituen aukeren inguruko informazioa zabaltzeko ahalegina egingo dute.

Konpromezua

Ekimenean hainbat ikastetxek hartuko



Aste Santu aurretik egin zuten programaren aurkezpene Debege sako egoitzan.

du parte: Elgoibarko IMH, Mutrikuko Institutua, Elgoibarko Institutua, Armeria Eskola, Uni Eibar-Ermua eta EUITI. Horiekin batera, eskualdeko hainbat enpresak egin du bat egitasmoarekin: AGMEk eta EPCK hitzarmena sinatu zuten aurkezpenean bertan eta, horrez gain, beste hainbat enpresatan ikasleen bisitak jasoko dituzte (besteak beste AGME, Tekniker eta Jaz-Zubiaurren). Aurkezpene amaitzean konpromezuak zehazten dituen agiria sinatu zuten Debege sak, Lanbide Heziketako Zentroek,

EUITIk, eskualdeko udaletako ordezkariak eta parte hartuko duten enpresek.

Enpresetara bisitak

Ekimenari esker, DBH 4. mailako ikasleek enpresa bat bertatik bertara ezagutzeko aukera izango dute. Eskualdeko 7 ikastetxetako 270 ikasle izango dira guztira (Eibartik Aldatze, Itzio BHI eta Mogel Isasik hartuko dute parte). Bestalde, apirilean mahaingurua egingo da eta www.baiindustriari.com webgunea laster ipiniko dute martxan.

Lokalak legalizatzeko neurri berriak

Aurreko programak porrot egin ostean, Udalak gazteen lokalak aktibitate eta funtzionamendua arautzeko oinarri berriak landu eta onartu ditu. Aurreko programarekin alderatuz, oraingoa malguagoa da eta lokal hauen legalizazioa lortzeko erretzasun gehiago ipintzen ditu.

Berritasunen artean, Udalak lokalak legalizazioa lortzeko egin behar den proiektuaren erredakzioa ordaintzen duela dago, lehen erdia ordaintzen zuen bitartean. Legalizazioa lortzeko, lokalak zaraten murrizte araudira moldatu beharko dira, eta segurtasun eta larrialdietarako neurri egokiak hartu beharko dituzte.

Programa honetara jotzen duten lokalek, bestetik, hilean 60 euro jasoko dituzte funtzionamendu gastuetarako. Udalaren helburua, programa honekin, gazteen lokalak funtzionamendu erregularizatu eta kontrolatua izatea da, eta honekin, bizilagunen protestak ekiditea eta lokalak erabiltzaileen segurtasuna bermatzea.

Ignacio Zuloagaren omenezko zezenketa maiatzean

Eibarko Zezen Batzordeak antolatuta, Ignazio Zuloagaren omenezko XIV. zezenketa egingo da maiatzaren 11n, arratsaldeko 18.00etan Eibarko Zezen Plazan. Aurtengo edizioan Pablo Hermoso de Mendoza, Luis Francisco Espiak eta Ivan Fandiñok osatuko dute jaialdiko kartela, atzo bertan egindako aurkezpenean ezagutzera eman zutenek. Zezenak, berriz, Guardiola Dominguez anaienak izango dira. Eneko Andueza Zezen Batzordeko kideak zezenketaren

aurkezpenean aipatu zuenez, "etapa berri bat irekitzen dugu aurtengo edizioarekin". Aurreko edizioetako izen handiak albo batera lagata, "irudi nagusia zezena izatea nahi dugu".

Aurrekontu handiagoa

Aurrekontua, bestetik, %20 igoko da aurreko urtekoarekin alderatuta, "120.000 euro ingurukoa izango da". Zezenketa antolatzeak aurrekontu handiagoa eskatu dienez, sarrerak ere aurre-

koetan baino garestago ipini beharko dituzte salgai. Hala ere, antolatzaileek diotenez sarrera mota gehiago lortzeko aukera izango da. Sarreraren prezioa 35 eta 80 euro bitartekoa izango da eta herriko 15 bat tokitan erosteko moduan ipiniko dituzte aurretik. Bestalde, informazio gehiago nahi izanez gero, elkarteak www.toroseibar.blogspot.com bloga martxan ipini du interneten.



autuan

KULTUR-LAGUNTZAILE LANPOSTUA

Eibarko Udalak kultura laguntzaile lanpostua betetzeko lan-deialdia egin du. LH2 titulua edo horren baliokide den beste tituluren bat dutenek aurkezdekete eskaera, euskerazko 2. hizkuntza eskakizuna baldin badute. Posizio-lehiaketara aurkezteko epea apirilaren 1ean amaituko da. Informazio gehiagorako Pegorara joan edo www.eibar.es helbidean sartu.

ALZHEIMERRAREN INGURUKO TAILERRA

Afagi elkarteak hilean behin Alzheimerraren inguruko tailer irekia eskaintzen du, gaixoaren zaintzaile eta familiakoei laguntza emateko asmoarekin. Tailer bakoitzean gai ezberdina lantzen dute eta apirilaren 10ean gaixoa etxean nola estimulatu daitekeen ikasiko dute parte hartzerantz animatzen direnek.

16.00etatik 17.30etara emango da tailerra, Egogain Gerontologia Zentruan (Ardantzako lokala oraindik ez dagoelako martxan). Partehartzea doan da, baina jardunaldia antolatzeko jendeak aldez aurretik izena ematea eskatzen dute antolatzaiileek, 943297118 telefono zenbakira deituta.

ZAINKETA IKASTAROA

Emakumeentzako Jabetze Eskolako Pepa Bojók 'Nork zaintzen du zaintzailea?' izenburuko ikastaroa emango du Andretxean (Zezenbide, 9 behe) apirilaren 3tik aurrera. Ikastaroa eguen arratsaldetan emango da, txanda bitan: talde batek 15.00etatik 17.00etara jasoko du ikastaroa eta besteak, berriz, 17.30etatik 19.30etara. Ikastaroan izena emateko azken eguna astelehena izango da (Pegoran). Prezioa 15 eurokoa da (erdia langabetuentzat).



Orkestrazioa

Berba hau Lehiakortasuneko Euskal Institututuko zuzendaria den Alejandro Ruelas-Gossi-ri entzun nion lehenengo aldiz duela hilabete batzuk. Orkestrazioaren bitartez zera adierazi nahi zuen, bizi dugun ekonomia berri honetan agertzen zaizkigun aukeretzat inork baino hobeto eta bizkorrago baliatzeko modurik eraginkorrena sare dinamiko batean aritu eta nodo egokiak koordinatzea dala. Horrela, aldiroko egoeren arrear balore eskaintza bakar egokiak egituratzeko gai izatea lortzen baita.

Teoria horren arabera gakoak ez da danetik jakin edo prozesu guztiak norberak menperatzea; norbanako, enpresa, elkarte eta erakunde sare dinamikoetako partaide izan eta nodo egokiak koordinatzen jakitea baino. Era horretan beste inork baino lehenago balore eskaintza berria eskaini ahal izango dugu, behar fisiko edo kultural jakin batzuk asetzeko baliotsua eta, aldi batean gutxienez, kopiatu ezina; hau da, enpresa liburuetan horrenbeste aipatzen den "ozeano urdina".

Ruelas-Gossi jaunaren iritziz, paradigma berri batean aritzen ikasi beharra dugu. Iraganeko erroka nagusia merkatu orekatu batean efizienteena nola bihurtu baldin bazen, aurrerantzean lehiakortasuna desoreka sortzetik lortuko dugu, zerbait berria asmatzetik. Eta zeregin horretan orkestrazioarako gaitasuna ezinbestekoa izango omen da. Kontuan izanda mundu globalizatu eta aldakor bati eskaini beharreko proposamenak derrigorrez daramatzala bere barnean konplexutasuna eta azkartasuna.

**Eduardo
Zublaurre**



Ikasle-ohiari akzesita:
Jose Antonio Gonzalo
(Ermua). "Hayth Orniyo
de Metrica".



1. saria: Asier Camacho (Basauri). "Luces y Sombras".

Industri-argazkilaritza saria Basaurira

Asier Camacho Fernández-en 'Luces y sombras' argazkiak eskuratu du Armearia Eskolako Ikasle Ohien Elkarteak antolatutako industri-argazkilaritza lehiaketaren bigarren edizioan. Irabazleak 900 euroko saria eskuratu du. Bigarren saria, berriz, herrian geratuko da, Jose Vila Airasen 'XVA' lanarekin

(400 euro). Hirugarren saria Oñatiko Xabier Arabaolaza Zubillagaren 'Eskuak' argazkiarentzat izan da (300 euro). Jose Valderrey, Jorge Agirresarobe eta Jose Luis Irigoienek osatutako epaimahaiak Ermuko Jose Antonio González Hernández ikasle-ohi onenari akzesita eman dio (200 euro).



2. saria: Jose Vila (Eibar). "XVA".



3. saria: Xabier Arabaolaza (Oñati). "Eskuak".



FELIX MORQUECHO

Amañako Jai Batzordeak 30 urte

Udaoro Amaña auzoan jaiak antolatzen dituen Jai Batzordeak 30. urteurrena ospatuko du aurten eta, uztailako ohiko programazioaz gain, maiatzerako ekitaldi bereziak antolatzeko asmoa du Jose Antonio Alberdi 'Goma'k, herritar guztiei urte hauetan jaietan parte hartzeagatik eskerak emateko asmoarekin. Maiatzaren 24rako aurreikusi den jaialdi berezian, besteak beste, Kupela taldearen emanaldia eta bertsolarien saioa aurreikusi di-

tuzte, eta sagardo kupela eta txorizo eta odoloste pintxoak salgai ipintzeko asmoa dute. Jaialdia Untzagan izango da, eta 'Goma'k aspalditik buruan zera-bilen ideia bati erantzungo dio. Izan ere, Amañako jendeaz gain herriko beste auzo eta kaleetako jende asko urtero Amañara joaten da, jaietan parte hartzera eta partehartze hori eskertu nahi du Jai Batzordeak. Horregatik, 30. urtemuga aprobetxatuko dute zerbait berezia egin eta euren esker ona azaltzeko.

Udal eraikinen azterketa Eskola Agenda 21ean

Eskualdeko ikastetxeetako ikasleek udal eraikinetara bisitak egiten dihardute, horietan egiten den energia-kontsumoa aztertzeko, Eskola Agenda 21 proiektuari jarraiki. Izan ere, Agenda 21 ek aurtengo ikasturterako aukeratutako gaia energia da: ikasleak eraikinetako energia-motak, kontsumoa, egokierak eta gehiago aztertzen ari dira eta, amaieran, eraikin bakoitzean energia kontsumoa zaintzeko hartzen diren neurriak jarraipena egiten diete. Eraikinak bisitatu eta aztertzeaz gain herriko beste hainbat tokiko energia azterketak ere egiten dihardute, bakoitzaren ikastetxearen inguruko azterketak eta kale-argiztapenaren gainekoak, besteak beste.



Horrekin guztiarekin, programan parte hartzen diharduten ikasleak ez ezik gizartea bere osotasunean gaia-aren inguruan sentsibilizatu nahi dute. Ikasleek, besteak beste, Mutriku, Deba, Eibar, Elgoibar eta Sorluzeko kiroldegia, udaletxeren bat eta pare bat kultur etxe bisitatu dituzte.

Ikasten-en jarduerak kontsultatzeko panela



Toribio Etxebarriako panelean egongo dira ikusgai Ikastenen eskaintza guztiak.

Debabarreneko Esperientzia Eskolako ikasle-ohien elkarteak bere jardueren berri emateko baliabide berria dauka: Toribio Etxebarria kalearen muturretako batean, San Andres eliza pareko lorategiaren aldamenean dagoen informazio-panela. Aurrerantzean, Ikasten elkarteak hurrengo egunetarako prestatu dituen jarduerak non eta noiz izango diren ikusteko aukera izango du horren inguruan interesa duen jende guztiak. Besteak beste ikastaro eta hitzaldien berri emango dute han ipiniko

dituzten oharren bitartez eta, gainera, hilabete osorako kultur-ekitaldien egutegia ikusgai egongo da. Ikasten-ekoek Eibarko Udaleko Kultura batzordeari eskerrak eman nahi dizkio, "gurekin horren modu eraginkorrean kolaboratu izanagatik". Datozen egunetarako programazioari begira, eguenean, 11.30etan bide-okonferentzia eskainiko da Hezkuntza Esparruan: José Luis de la Cuesta EHUko irakasleak 'Qué hacemos con los menores infractores?' izenburuko hitzaldia eskainiko du.

KATU KALE
TABERNA BIDEBARRIETA, 1

Radio Eibar

CADENA SER

104,0 FM



Historikoki pekatu kapital moduan ezagutu diranak zaharkittuta geratu dira. Denboria aurrera doia eta eliziak, ikusten denez, sasoi barrira egokitzea nahi dau. Pekatu barrixak zaharri gehitzen jake, pekatuak pekatu diralako oiñ eta beti. Vatikanuak, Gianfranco Girotti prelauek L'Osservatore Romano Vatikanoko egunkarixan

egindako elkarrizketa baten bittartez, "oraiñaldixa kontuan hartzen dabenek pekatuen zerrenda" barri bat ezagutzera eman dau. Manipulaziño genetikua, ingurugiruari kaltia egittia, aberastasunaren gehixegizko akumulaziñua, narkotrafikua eta drogen kontsumua dira elixa katolikuak zehaztu dittuan pekatu barrixak. Holan, izan leike infañua zabaldu bihar izana. Bill Gates, Warren Buffet eta antzeko aberatsek bero-bero pasatuko eben hil osteko bizitzia. Elizia garai barrixetara moldatzen doia eta pekatari barrixen bila be bai. Pekatu zaharretatik gitxi batzuk libratzen baziran, orain gitxixago izango dira zerura juateko txartela lortuko dabena.



Juan Luis Agirre 62 urte, jubilaia

Neri begittantzen jata lehendikan ipiñitta euazen pekatuekin nahikua zala, holan, oiñ ipiñi dittuen pekatuak gehixegizkuak dirala begittantzen jata. Lehenguekin nahikua zan eta esan leike soberan be euzela, holan, pekatu barrixak oindiokan bestiak baiño soberago dagoz.



Ander Azpiazu 22 urte, ikaslia

Egixa esan, neri berdin desta elixiak zer esaten dabene. Ez naiz erlijiosua eta ez detset kaso askorik egitten Aita Santuak esaten dabene gauzeri. Holan, pekatu barrixen kontua ez jata asko inporta, sinisten dabene artian egin biharko zan berba horren danan gaiñan.



Nerea Arrate 70 urte, jubilaia

Gauza barri asko dira pekatu eta, lehen eguazeneri gehitzen badetsagu, asko dira; holan, ez dakitt ondo dagozen ala ez. Halanda be, pekatuak dirala esan badabe zeozergaittik izango da, baiña oindiñok ez naiz horretan pentsatzen jarri, egixa esan. Elixia aldatzen doia, baiña gehixago aldatu biharko zan.



Manoli López 52 urte, dendarixa

Ba ez dakitt, gauzia da ez jatala asko inportatzen elixiak pekatu barrixak ipiñi dabene edo ez. Naturia ondo ez zaintzia bai ikusten dot txarto, pekatu baten moduan, baina elixara ez juatia ez dot uste pekatua danik eta aberastasuna dakanak, ba beno, berandako hobeto.

Zelan ikusten dittuzu elixiak izendautako pekatu barrixak?

Garitano
1957an sortua
GOZOTEGIA

- ETXERA banatzen dugu
- Ezkontza eta despedidetarako TARTAK

Julian Etxeberria, 6
Tel. 943 20 24 51

foto orain
Urki 17 an gaude

erreportajeak 943 20 27 16
ezkontzak 688 64 73 44

estudioa **JAUJA**

EGOITZA NAGUSIA
Bidebarrieta 20 - behea

FUNERARIA MUGICA

Tanatorio Crematorio del Bajo y Alto Deba

- Tanatorioa eta Errausketa labea Elgoibarren (Sigma poligonoan).
- Partikular, mutua eta aseguru etxeei zerbitzuak
- Koroak - Eskelak - Urteurreneko eskelak
- Euskal Herri osoko ospitaleetan hartzen zaitugu
- Nazio eta Nazioarteko trasladoak

Mugica Ehorzketa
Funeuskadi taldea

TELEFONOA (24 ORDU)
943 201 951

Azken egunotako eurixarekin udabarrixan sartu baiño negura bueltan goiazela badirudi be, asteburu honetan gure erlojuak udako ordutegira moldatuko dittugu: zapatutik domekara bittartian, 02.00xetan ordubete aurreratu biharko dira erlojuak, 03.00etaraiño. Gaba-goizaldiari 'lapurtzen' detsagun ordubete horren trukian, barriz, egun argixaguak izango ei dittugu aurrerantzian eta, gaiñera, energixia aurreztuko dogu. Baiña modu automatikuan egitten dogun keiñua egitteko pisuzko arrazoiak dagoz ala, beste barik, inertziak bultzatuta kanbixatzen detsagu erritmua etxeko erloju guztieri urtian birrittan?

Goizetako argittasun-orduak murriztu eta arratsaldekuak, barriz, gehitu egingo dira asteburuan ordua kanbixatziarekin batera. Urtian birrittan kanbixatzen dogu ordua gurian, asteburu honetan udako ordutegixari moldatzeko eta urriaren 26xan, barriz, atzera be neguko ordutegira bueltatzeko. Gaur egunian erregular egitten dan kanbixua, baiña, ez da betidanik egiñ izan. Batez be 1974. urtetik aurrera hasi zan generalizatzen, urte horretan egon zan petrolio-krisixari aurre egitteko neurri gisa eta, beraz, energia-konsumua murrizteko helburu garbixarekin: eguzkixaren argixari etekin gehixago etaratzia billatzen eben, elektrizidade gastua txikixagua izateko. Halanda be, 1981. urtiaz geroztik direktiba modura aplika-

zten hasi zan Espaiñian eta lau urtian behin direktiba barritzen segidu dabe, gaur egunera arte.

Mende haslerako salakerak

Baiña aurretik be egin ziran horrelako saiakerak hainbat herrittan: 1907xan William Willettek lehelengoz proposau eban gaur egungo sistemía eta 1916xan, Lehen Mundu Gerran ikatza aurrezteko eruan eben praktikara lehelengoz.

Espaiñiako Industria, Turismo eta Merkataritza ministeritzako Enpresa Entitate Publikuak egitten dittuan kalkuluen arabera, martxoa amaieratik urria amaiera bittartian %5 aurrezten da etxe barruan egitten dan argi-konsumuan. Ideia bat egitteko: estaduko famelixa baten bataz besteko consu-

ZAPATUTIK
DOMEKARA
SARTUKO DA
INDARRIAN
UDAKO
ORDUTEGIXA



Zer ordu da?

mua 3.200 kWh baldin bada, etxe bako-txeko 6 euro aurrezten dira. Batzuren-dako hori huskeria bat izan leike, baiña etxebizitza guztiak batuta, danera 60 millioi euro aurrezten da. Etxe-barruan aurrezten danari, gaiñera, merkataritza eta zerbitzu ar-luan aurrezten dana gehittu bihar jako: aire-girotuarekin bakarrik %3 aurrezten da (6 millioi eurotik gora).

Europako Batasunian

Gauzak holan, 2001ian Europako Parla-mentuak eta Batasunaren Kontseilluak Be-

Herri Irratia Eibar
Loyola Media

U.D. SALAMANCA - EIBAR K.E.

Jarraitu partidua:
Borja Rodríguez
eto Herri Irratiko
kiroletako taldearekin

Martxoak 30 domeka, 18.00etan

90.7 Fm



Dirua aurrezteko aitzakixarekin hasi ziran indarrian ipintzen ordua kanbixatzeko neurria.

deratzigarren Direktibia onartu eben eta, kontrakua erabagi arte, ordutegi aldaketia urtero, modu indefiniduan aplikatzen jarraituko dabe Europako Batasunaren parte diran herrialde guztietan, "sektore batzuen funtzionamendu egokirako epe luzerako programaziño egonkorra bihar dalako".

Mesedegarrixa ala kaltegarrixaxa?

Baina egunerokotasunari begira ipintzen bagara, zertarako da mesedegarrixa ordu-

tegi aldaketia? Arratsaldiak nolabaitt luziaguak izatia mesedegarrixa da, bestiak beste, beranduragora arte kalian ibilli nahi dabenendako, arratsaldeko azken orduak kirola aire librian egitten dabenendako, dendetan azken orduan jende gehixago ibiltzeko... baiña hirixetako bizimodutik kanpo, naturarekin harreman zuzenagua daken jardueretan eragiña kaltegarrixaxa izan leikela pentsatzen dabe askok eta gure osasun eta erritmo biologikuan be onura baiño kalte gehixago agertzeko arriskua ikusten dabe: bestiak beste, eguzkiaren azpitan pasatzen dittugun ordu kopurua hazi egitten da eta, herrixa nun dagan arabera, larregizko esposiziñuarekin lotutako gaixotasunak agertu leikez. Baiña muturreko kasuetara jua barik, loaren gaiñeko eragiña kaltegarrixaxa dala nahiko probatuta geratu da medikuntza arluan eta in-forme askok agerixan laga dabe jende morduak gixiago eta okerrago egitten dabela lo. Kazajstan-ek udako ordutegixa baztertzeko aitzaki edo arrazoi modura



osasun arazuak aittatu zittuan. Halanda be, honetan be arrazoi ekonomikuak osasunaren gaiñetik ipintzen dittue gobernuak eta, horregaittik, ekonomixarendako onuragarrixaxa dan bittartian badirudi urtietan holan segiduko dogula.

Baiña energia gixiagi konsumitzeko ez da nahikua ordutegixa aldatzia eta, horregaittik, ohitura batzuk aldatzeko aholkuak zabaltzeko ahalegin berezixa egitten dihardue azken urtietan: ezeri uko egin barik, bakarrik etxeko argixa modu inteligentete eta arrazoizkuan erabillitta, urtian 100 eurotik gora aurrezteko aukeria dago eta, gaiñera, ingurumena hondatzen daben kutsadura be bajatzen da.



Hiri barruko bizitzarako ona izan leike kanbixua, baiña naturarekin lotutako jardueretan ondorixuak ez dira haiñ onak.

EMPRESA
JARDUEREN
FAKULTATEA
DIREKTIBATZA DE
SERVICIOS
EMPRESARIALES



MONDRAGON
LIBERTSITATEA

PREST

ATE IREKIAK!

APRILAK 5 10:00-13:00 larunbata **ARETO Nagusia** > **ORANTIKO CAMPUSA**
Tel: 943 71 80 89 / ogratu@etee.mondragon.edu

APRILAK 3 18:00 ostearkara **ARETO Nagusia** > **INDUSTRIKO CAMPUSA**
Tel: 943 63 91 22 / esle@etee.mondragon.edu

ETORRIBO CARLA JAENARAZI

Ordezkariak: > Espesial Administrazio eta Zuzendaritza Ordezkari
> Zuzendaritza Markatza

[WWW.ETEE.MONDRAGON.EDU](http://www.etee.mondragon.edu)

teen-ajeak



Ander Romarate Espainiako igeriketako txapelaldun bilakatu da 100 eta 400 m. estilo librean; arpitxapelaldun beste bi modalitatetan. Joko Olimpikoetan parte hartzea da bere ametsa.

“Asko entrenatuz lortzen dira sariak”

- Espainiako titulu bi lortu dituzu. Zorionak.

Eskerrik asko.

- Horrez gain, beste bi azpititulu ere eskuratu dituzu. Zeln da hainbeste sari lortzeko gakoa?

Gakoa egunero-egunero lan egitea da. Asko entrenatu behar da, gogo handiarekin eta gelditu gabe. Egunero gogor entrenatuz lortzen dira horrelako sariak.

- Zenbat entrenatzen duzu astean?

Bost edo sei egunetan joaten naiz entrenatzera igerilekura. Horrela, egunean ordubete edo ordu eta erdi ari-

tzen naiz igeri egiten lehiaketarako prestatzen.

- Igeriketan hasi zinen...

Ikastaroetan lau urtekin hasi nintzen. Ondoren, Urbat taldeko kide bihurtu nintzen.

- Zeln igeriketa estilotan aritzea duzu nahiago?

Estilo librean igeri egitea dut gustokoen, crawl-ean. Bizkarrez ere askotan aritzen naiz, baina emaitza onenak estilo librean lortu izan ditut.

- Zeln da zure ametsa igeriketa munduan?

Joko Olimpikoetan parte hartzea. Adibidez, Londresen 2012. urtean jokatuko diren Joko Olimpikoetan.

PARETAK ARTE bihurtuz

Erromatar Inperioan ere existitzen ziren graffitiak. Latineko graphititik dator grafito berba eta graffiti da bere plurala. Horretan egindako inskripzio eta markei deitzen zitzairen horrela. Erromatarren garai-ko paretetan maitasun adierazpenak, irainak eta beste-lakoak aurki daitezke. Ordu-tik hona, munduko horma asko izan dira margotuak edo, gutxienez, markatuak.

Euskal Herrikoak ere. Topaguneak, Euskara Elkarteen Federazioak, V. Euskal Herri-ko Graffiti Lehiaketa antolatuko du aurten. Edizio berezia izanda, bosgarren urteurren honetan Topaguneak hainbat berritasun aurkeztu ditu. Erandiok jasoko du V. Euskal Herriko Graffiti lehiaketa, baina hori prestatzeko, Topaguneko Haur eta Gazte saila material berezia prestatzen ari da.



Erandioren egingo da Topaguneak antolatzen duen lehiaketako V. edizioa.

HOROSKOPOA

ARIES

Nahikoa atsean hartu duzu Aste Santuan? Berreskuratutako indar berri guztiak asko eskertuko dituzu; izan ere, datorren astea nahiko gogorra izango baita zuretzat. Oporren osteko sindromea jasan- go duzu, alajainkoa!

TAURUS

Bai, oporrak oso laburrak egiten dira, konturatzen zarenerako berri- riz ere zaude egunerokotasun tristen murgilduta. Beraz, egin behar duzuna da egunerokotasun horri alde ona aurkitu eta opor- giroaz mozorrotu!

GEMINI

Ez zaitetz hainbeste kexatu zure fi- sikoarengatik. Oso ondo zaude, zure berreneko kontua da gaizki ikuste hori! Fisikoak ez dizu hain- beste arduratu behar, burua ondo eta gustora izanez gero, gorpuz- tzak ez du garrantzia askorik.

CANCER

Udaberria hasi berri da eta zoro- arren pare zaude jada! Egian esan, urtaroak ez du garrantzia askorik, zu horrelakoa zara eta kitto! Egia esan, pozez txoratzen egoteko ait- zakia ugari izango dituzu udabe- rri honetan.

LEO

Dena pikutara bidaltzeko gogo- a izango duzu hurrengo egunotan. Bakardade piska bat eskatuko diezu ingurukoiei, arnasa piska bat hartzea besterik ez duzu nahi. Liburu bat lagun egokiena izan daiteke momentu hauetan.

VIRGO

Ezin duzu ahaztu Aste Santuan ezagutu zenuen pertsona hori? Es- kerrak opor laburrak direla, beste- la zu bertan geratzeko kapaz zara! Beno, ahalegindu burutik kentzen eta benetako garrantzia duten gauzetan zentratu zaitetz.

LIBRA

Lagunek egin dizutena barkaezina da, baina zer egingo duzu, baka- rrikeratu? Barkatu iezaiezu, ez zuten maliziarekin egin, ez dira hain txarrak! Egia esan, asko esti- matzen zaituzte. Gertatu den baka- rra da zurekin ez dutela asmatu.

SCORPIUS

Osasun aldetik makal ibiliko zara hurrengo egunotan. Zertan ibili zara Aste Santuan bada? Beno, astroek dena ikusi eta igartzen dute. Zaindu zaitetz eta deskantsa- tu piska bat. Gorputzak eta ingu- runeak eskertuko dizu.

SAGITTARIUS

Faltan bota duzu joan den asteko iragarpena? Astroek atsedena merezi dute, zer uste duzu ba? Gainera, ez zaitetz hainbeste kexa- tu, gauzak zoragarri joan baitzaiz- kizu! Beti eskatzen, ai ene! Zureak ez du erremediorik!

CAPRICORNIUS

Aspaldiko partez gauzak era ar- giago eta zoriotsuago batean ikusiko dituzu. Bolada txarra pa- sa da, orain irrifarre batez egingo diozu aurre bizitzari. Edozein de- sio eskatuta ere, bete egingo zai- zu! Hori zoriona, hori!

AQUARIUS

Badirudi haurtzarora ez duzula al- de batera utzi, beti umekerietan! Hazteko momentua heldu zaizu, duela denbora dexente gainera. Peter Pan-en antzekoa zarela uste duzu? Ba jakizula galtza horiek ez zaizkizula ondo geratzen.

PISCIS

Beti gosearekin zabilta, ez zara inoiz asetzen! Nolako sakea dau- kazun! Etxean pozik egongo dira zurekin; ez duzu platerean inoiz ezer lagatzen. Hala ere, zurekin elikagaien aurrekontua ikustekoa izango da.

Izen baten bila

Lehiaketaren inguruko webgune tematiko bat eta paperezko argitalpen batean datza material horrek. Beraz, lehiaketari berari eta materialari izena emateko, lehiaketa-txo bat antolatu du Topaguneak graffitilariak eurek proposamenak egin ditzaten. Izan ere, euskarri biak graffitigileen laguntzaz osatu nahi ditu Topaguneak, haietzako tresna baliagarria izatea nahi dute-eta.

Material eta lehiaketari izena bilatzeaz gain, bi euskarri horiek osatzeko materiala bilatzen ere dabiz. Horretarako, graffitilariak herrietan egindako argazkiak lortu nahi dituzte argitalpenean eta webgunean ikusteko, Euskal Herri osoan erakusteko. Argazki hauek aurkezteko denetariko graffiti motak onartzen ditu Topaguneak: hormak, bombersak, trenak eta abar.

Lehiaketarako proposamenak aurkezteko epea gaur amaitzen da eta graffitiak@to-



Gaur amaitzen da proposamenak egiteko epea; sasoiz ibiliz gero, bidali graffitiak@topagunea.com helbidera.

pagunea.com helbidean egin behar dira hauek. Proposamen guztien artean aukeratu da webgune, argitalpen eta lehiaketari izen propioa emango diona. Lehiaketaren garaileak, gainera, 60 sprayko lotea irabaziko du.

Lehiaketa Erandion

Bigarren urtez jarraian egingo da Bizkaian lehiaketa

hau, izan ere, iazko edizioa Gernika-Lumon egin zen eta aurtien Erandion izango da. 2004ean hasi zen lehiaketa hau. Mendarok jaso zuen lehen edizioa eta 2005ean Getxok hartu zion txanda antolatzaile moduan. 2006an, berriz, Tolosan egin zen lehiaketa eta Gernika-Lumok jaso zuen orain arte egin den azken edizioa.



Ura bota eta bota

Zapatuan, martxoaren 21ean, Uraren Nazioarteko Eguna ospatzeko, aldarrikatzeko, gogoratzeko, ahazteko, bustitzeko... auskalo bakoitzak zertarako, aukera izan genuen. Baina egun hori pasatu eta gero badirudi zerua, errekek eta ibaiek beldurrez begiratzen ditugula. Horren beharrezkoa zen euria agian gehiegixko izan den edo, behintzat, azkarregi etorri ote den pentsatzen hasiak gara.

Leihotik begira eta euria besterik ez dut ikusten. Euria zer da ba? Ura, azken finean. Esku artean, Miliurtekoaren Garapen Helburuak betetzeko lortu diren eta ez diren aurrerapausuak aztertzen dituen txosten bat darabilt, eta kanpoan euria, besterik ez. Zazpigarren helburuak azken aldia hain modan dagoen ingurumenaren iraunkortasuna bermatzearekin zerkusia du. Bere barnean hiru azpigelburu jasotzen ditu eta hauek bategi batek honela dio: "2015erako ur edangarria edo oinarrizko higieua lortu ezin duten pertsona kopurua erdira jaitea beharrezkoa da".

Nazio Batuek ur edangarria lortzea giza eskubide-tzat hartzen dute, baina nork hartzen du bere gain hori lortzeko baliabideak ipintzea? Gaur egun nola neurtzen dute eskubidea betetzen ari den ala ez? Besteak beste, gaur egun 20 litro ur garbi pertsonako eta eguneko beharrezkoak direla diote. Baina esku artean dudaren txostenaren arabera, munduan oraindik 1.100 milioi lagunek (populazioaren %20k) ez dauka oinarrizkotzat jotzen dituzten 20 litro horiek. Leihotik begiratzen dut eta euria, ura, botatzen jarraitzen du.

Leire Morketxo
(EGOAZIA GKE-KO KIDEA)



Instikoen erakusketak domekara arte iraungo du Topalekun

Hilaren 21ean zabaldu zen, Kultuko Topaleku erakusketaren aretoan, Ignacio Zuloaga Institutuko ikasleen lanekin antolatutako erakusketak. Guztira, 28 gazte hartu dute parte bertan, 16 eta 19 urteko tarte horretakoak. Erabilitako disziplinak honakoak izan dira: pintura, marrazki artistikoa, diseinua, argazkilaritza, eskultura, grabatu kalkografikoa... Artista gehienak Institutuko Batxilergo Artistikoko ikasleak izan arren, badira beste Batxilergoko ordezkariak ere, batez ere argazkilaritzaren arlokoak. Erakusketak domekan itxiko da, martxoaren 30ean.

Electrocicloseko pasabiderako hitzarmena onartu dabe

Eibarko Udalak eta Eusko Jaurlaritzak Electrocicloseko etxietarako pasabidien trenbidiaren paso-nibela saihesteko hitzarmena sinatu dabe. Paso-nibela albo batera laga eta biala egingo dabe Asua Errekatik eta, horretarako, 3 millioi euro erabiliko ditue. Hitzarmenari jarraituta, horren erdixa Udalak pagauko dau eta beste erdixa, barriz,

Jaurlaritzak. Lanak amaitzeko 8 bat hillebete biharko dirala aurreikusitako dabe eta aurten hasi eta hurrengo urtian amaituko ditue. Eusko Jaurlaritzak biharerako plangintza bialdu detsa Udalari eta erakunde bixak ontzat emon dabe proiektua. Beraz, lan-eskintza egittia baiño ez da falta biharrek zeñiek egingo dituan erabagi eta biharrian hasteko.

Asua Errekatik Barakaldora

Onartu daberen proiektuaren arabera, bariantiaren eta Barakaldo kalia-aren artian daguan bidia aprobetxauko dabe bial barrixa



EKH BELAR

egituko. Halanda be, tranbide gaiñetik daguan pasua desagertuko danez, bide hori hortxe moztuta geratuko da. Electrociclosen egitten diharduen etxien inguruan, barriz, errepide barrixa hasiko da, bariantiarekin paraleluean, baiña bariantia baino beherago. 300 bat metro holan egiñ eta gero, Asua Errekatik bialarekin bat egingo dau bial barrix-

xak. Horrez gaiñ, Asua Erreka kalia moldatu egingo dabe, tuneletik behera Barakaldo kalerako doiazan automobillak pasau ahal izateko. Holan osatuko dan ibilbidia esker trenbide gaiñetik ibilli biharra saihestia lortuko dabe. Oñezkuak, barriz, trenbide azpittik pasauko dira, honezkeroko egitten hasitta daguzan pasabidien esker.



Udaberri jai koloretsua Abontzan

Abontzako Iturrixa Elkarteak martxoaren 16an emon zetsan ongietorria udabarrinari, azken urtiotan egiñ izan daberen moduan. Betiko moduan, jai-xarekin bat egittera animau zi-

ranak primeran pasau eben domeka eguardixan eta antolatzaillak euren eskerrik beruena azaldu nahi detse parte hartu eben guztieri. Jaialdi jendetsua izan zan, antolatzaillak kontau deskuenez: "Urteroko moduan

jende mordu agertu zan paretak margotzera, zerua globoz betetzera, mokadaxo bat jan eta tragua hartzera. Jaialdixa musikarekin alaituta egon zan eta benetan goiz paregabia pasau genduan danok". Auzoko umiak globo ko-



Amaia Ziordiak eruan eban otarra etxera. Argazkixan sarixa eskuan dakala pozarren ikusi geinke, alkarteko ordezkarekin batera.

loretsua askatu zittuen Egigurrentarreneko parkian eta, haizia lagun, herriko zerua apaindu eta alaitu eben. Bestalde, jaixan parte hartu ebenen ar-

tian Baqué kafe-etxiak eskindutako otarra zozketatu eben eta sarixa 7.535 zenbakixa zekan Amaia Ziordiarendako izan zan. Zorionak!

AKONDIA

Albaitari Zentroa

Julen Arano / M^a Jesus Blanco

Bitto Sarasketa, 12

943 12 74 15

MUGICA *iturgintza*

- GASA ETA ITURGINTZA
- ALTZARI ETA OSAGARRIAK
- BAINUONTZIAK eta HIDROMASAJERAKO KABINAK
- HANSGROHE GRIFERIA
- AIRE EGOKITUA
- ZORU ERRADIATZAILEA

San Juan 15 - behea

Tfnoa. 943 201 030 / Faxa. 943 207 224

LORADENDA

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1 ☎ 943 20 33 29 EIBAR




Eibarren hasierako jarduera du. Aktibitatea **EIBARKO MEDIKUNTZA ZENTROAN** garatuko da, orain dela 20 urtetik hona Eibarren lanean diharduen eta Urkizuko dorreetan instalazio berriak zabaldu dituen zentroan.

Medikuntza eta estetikako **S2B** unitateak honako aktibitateak biltzen ditu **EIBARKO MEDIKUNTZA ZENTROAN**:

- Fotodepilazioa**
- Fotogaztetzea**
- Eguzki-orbanen tratamendua**
- Gorputz tratamenduak**
- Aurpegirako tratamenduak**

1.- BEREZ MEDIKOAK DIREN AKTIBITATEAK:
Laguntza medikoa Kirurgia, Medikuntza estetikoa, Dermatologia, Dietetika eta Nutrizioa espezialitateetan.

2.- ESTETIKA AKTIBITATEAK:
Tratamenduen area: tratamendu guztiak gure mediku taldeak baloratu, gainbegiratu eta kontrolatzen ditu. Konbinatutako teknikekin egiten dugu lan, paziente bakoitzaren adinaren eta azalaren egoeraren edo fototipoaren arabera tratamendu protokoloak antolatuz.



- **Fotodepilazioa**
- **Fotogaztetzea**
- **Eguzki-orbanen tratamendua**
- **Gorputz tratamenduak:**
 - Zelulitisa
 - Biguntasuna
 - Likidoen erretentzioa
 - Lokalizatutako loditasunak
 - Nekatutako hankak
 - Zirkulazioa
 - Erreflexoterapia
 - Tratamendua algekin
- **Aurpegi tratamenduak:**
 - Deshidratazioa
 - Nutrizioa
 - Zahartzearen aurkakoa
 - Biguntasuna
 - Azal koipetsua
 - Aknea
 - Zimurrak

Azken belaunaldiko kosmetika

Gure eredu mediko estetikoa bezeroei zelulitisa, biguntasuna, hanka nekatuak, estriak, adinaren aurkakoa, obesitatea, barizeak, zimurrak, depilazioa eta abarren tratamendurako kirurgikoak izan barik alternatiba mediko eta estetiko onenen eskaintzan oinarritzen da.

Premisa horri jarraituz, funtzio mediko eta estetikoak aurrera eramateko kualifikatutako pertsonalak hornitzen du gure unitatea; horrez gain, espazio eta tresneri konkretua erabiliz.

Horregatik, beste zentro mediku estetikoekin dugun aldea da aspektu medikua ez dugula sendagile estetiko baten elkarlan puntualan oinarritzen, baizik eta gure lana bermatzen dugula eta pazientei koadro mediko baten integrazioa eskaintzen diegula. Aktibitatea aurrez egindako diagnostikoarekin hasten dugu,

hainbat espezialitate medikuekin elkarlanean: dermatologia, kirurgia plastikoa, kirurgia baskularra, medikuntza estetikoa...

Bestalde, Unitateak berez estetikoak diren aktibitateak garatzen ditu: depilazioa, masajeak, tratamenduak, etb. Hasieran ez badute osasun laguntzarik behar ere (estetika zentroetan garatzen diren moduan), praktikak erakusten digu osasun arloko elkarlana funtsezkoa dela. Horregatik ATS profesional baten partehartze eta praktika zuzen eta jarraituaz kontaktzen dugu.

Enpresa bat gara, medikuntza, dietetika eta nutrizioa eta estetikari diharduten profesionalak osatua. Gure taldeak urte askotako esperientzia du eta elkarlanean jarduten du, zerbitzu globala ematez gain teknologia aurreratuena erabiliz.

Guzti horrek eraginkortasun berme osoa ematen die gure bezeroendako tratamenduei.

Azken urteotan osasuna prebentzioari, ongizateari eta edertasunari lotuta doa. Horregatik gure proiektuak itxaropen horiek bete behar ditu. Kalitate handiko Unitate edo Zentroa proiektatu dugu, bezeroengandik gertu dagoena.

Eskaintzen ditugun tratamenduen kalitatea ziurtatzeko, beharrezkoak diren teknologia eta espezializazio teknikoak dugu eskura. Gure bezeroei harreman pertsonalizatua eskaintzen diegu eta gure tratamenduetatik onura handienak lortzeko aholkua.

Gure zentruetan bezeroak eskura izango ditu bere osasuna, ongizate eta edertasunerako teknologia eta kosmetika gaurkotuenak.

centro médico eibar osasundegia

Urkizu Pasealekua, 13

S2B

Tfnoa. 943.120.200

GREMIOEN GIDA



ANTENAK

BALATZ S.L.
SAT, TVC, Bideoa
Bidebarrieta 37 Tfnoa. 943 20 05 08
Faxa. 943 20 04 94

Ego Gain z/g
Tfnoa. 943 12 73 50
Faxa. 943 20 73 60
www.trinmer.com

trinmer

TELEKOMUNIKAZIOAN
PROFESIONALAK

AROTZAK

ulmar
S.L.
metalezko eraikuntzak

metalezko eraikuntzak
aluminiozko eta pvc-ko aroztegia

ulmar, s.l.
Txonta, 30 - 1. eta behea
Tfnoak: 943 12 13 67 Faxa: 943 12 01 50

ERAKUSKETA
EIBARREN, Urkizu 26an (Tel. 943 12 74 01)

ELEKTRIZITATEA

• Barne apainketak
• Mantenimendu eta automatismoak

MANTELEC, S.L.
Ubitxa 7-11 Tfnoa. 943 70 10 44
Faxa. 943 20 85 48

urki s.a.
elektrizitatea

INDUSTRIALA:
— instalakuntzak
— bobinatuak
— automatismoak

Arragueta zeharbidea 1
Tel. 943 12 05 95
Faxa. 943 12 05 72

AROTZAK

IMAR AROZTEGIA

- Barruko atek eta blindatuak
- Oholiza eta parket mugikorak
- Armairu enpotratuak eta neurriak
- Sukalde eta elektrodomestikoa

Olaso, 15
55-A-1 pabilioia
ELGOIBAR

Tfnoa.-Faxa: 943 53 14 71
Mobilak: 609 054 978 / 646 905 564

AUTOEN MEKANIKA

urki s.a.

AUTOEN MEKANIKA

Arragueta zeharbidea 1
Tel. 943 12 05 95
Faxa. 943 12 05 72

ERREFORMAK

Obra gauzatzeko proiektuak
Obra zibila eta eraikuntza
Obra osoa, giltza eskura
Gremioen koordinazioa
Behere errehabilitazioa etxetan
Etxetako errehabilitazioa
Itxuradetako errehabilitazioa

AILA
Proiektuak eta Erreformaak

ELGETA-KALE (Punto y Aparte-ren ondoan)
Tel. 647 426 352 / 943 530 391 / 670 957 799
Faxa. 943 530 392 allaproiektuak@hotmail.com

IÑAKI

Egurrezko mota guztietako lanak

Ateak - Tarimak Altzariak

Milaflores 10 Tfnoa. 943 20 35 55

ELEKTRIZITATEA

ATEZAIN AUTOMATIKOAK - ARGIZTAPENA -
MUSIKA - ETXEETARAKO ETA
INDUSTRIETARAKO INSTALAZIOAK

ELECTRICIDAD EIBAR S.L.

INSTALAZIO ETA MUNTAIA ELEKTRIKOAK

Urkizu, 32 behea Tel./Faxa. 943 12 73 75
Mobila. 607 71 38 74 / 607 71 38 73

Tel. 943 20 04 43 • Faxa. 943 20 14 11
www.casanella.com J. Gisasola, 16 behea

ERREFORMAK BAINUAK
PROIEKTUAK ALTZARIAK
SUKALDEAK DEKORAZIOA

CASANELLA

Aroztegia □ Ebanisteria
□ Obra aroztegia

ARPINTERIA NANBAIZA S.L.

Egiturak, barruko eta kanpoko atek,
armairu enpotratuak, tarimak, parketak, rodapiesak,
eskilarak, miradoreak, moldurak, oholak, janbak, leihoak

Otaola Etorbidea, 27 Tel. eta Faxa. 943 201 757

ESTUDIOS ARRILLAGA

Proiektu eta erreformak
Gremioen zuzendaritza

ARRAGUETA 12 -Eibar- Tel. 943 20 06 98
ROSARIO 15 -Elgoibar- Tel. 943 74 40 19

SUKALDE ALTZARIAK

ARROZTEGIA
Iparragirre Anaiak

F. Calbetón, 4 behea Tel. 943 20 29 27
Tailerra: Apalategi auzoa Tel. 943 12 01 92
Mobila: 657 79 56 78

GURIA

ELEKTRIZITATEA

* Muntaiak eta proiektu elektrikoak

Matsaria 2 - 7. pabilioia
Tel. 943 70 08 95 - Faxa. 943 82 00 27
www.electricidadgurria.com

Informazio gehiagorako



943 20 67 76



GARBIKETAK

 **scudero**
INDUSTRIA GARBIKETA

Otaola Etorbidea, 13
Tfnoa. 943 12 71 08 Faxa. 943 20 67 94
www.escudero.euskalnet.net

 **TREJO**
GARBIKETAK S.L.

Tel: 943-752557
Faxa: 943-752556
16 Postakutxatila - Sorluze

Garbiketa eta mantenimendua

HORNIKUNTZA

 **GARAIONDO BASTIDA**

hornikuntza industrialak

Telef. 943 12 02 08
Faxa. 943 12 02 12 **Barakaldo 9^{an}**

IGELTSEROAK

JOSE MARIA IRAZABAL, S.L.



Azitain Industrialdea, 3
H Pabilioia
Tfnoa. 943-120108

*ERAIKUNTZA ETA ERREFORMAK
IGELTSERITZA ETA
GREMIOEN KOORDINAKETA*

www.irazabal.net

ITURGINTZA

INDA iturgintza

 **UR, GAS eta KALEFAKZIO INSTALAZIOAK**

- Proiektuak eta aurrekontuak
- Bainu eta sukaldeen erreformak

Tfnoa eta Faxa: 943 12 18 64 (tailerra)
Mobila: 669 29 34 63 **Asua-Erreka, 2**

KRISTALAK

 **ACHA**
Kristaldegia

KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK
ERREKATXU 3^{an}

☎ eta faxa: 943 20 39 03

PINTURAK

 **AIXA**

Pintura orokorra
Margotutako paperak
Zoruen kolokazioa
PVC zoruak
Maketak
Alfonbrak
Kortinak
Etxerakoak
Osagarriak

Tfnoa. eta Faxa.
943 20 05 94
T. Etxebarria, 8 - behea

 **PINTURAS ARRATE, S.L.**

- Nexa Autocolor
- Herberts industrial
- 3M produktuen banatzailea

ARANE, 13 parrate@terra.es
Tel. 943 20 41 04 Faxa: 943 70 06 89

ARREGI

Juan Gisasola, 2
Tel/Fax: 943 20 79 37
Mobilak: 675 70 87 52 / 670 73 61 00

**MARGOLARIAK
GOI MAILAKO DEKORAZIOA**

Pintura
Goi mailako dekorazioa

 **MAYO**

Pago Kalea, 35 DURANGO
Tel. / Faxa: 94 620 03 01
Mobilak: 607 41 71 81
666 74 30 98

MALKAR
PINTURAS

Sostoa, 16 ac behea
Tfnoa. eta Faxa. 943 700 900
Mobila. 656 784 396

SARRAILAGINTZA

 **GILTZAK**

Era guzietako sarrailen salmenta eta mantenua
Segurtasun-instalakuntzak
Sarrailen egokipenak
Segurtasun kutxak
Era guzietako giltzen kopiak
Trabatutako ateak askatzen ditugu

Arragueta 3
Tfnoa. 943 70 13 91 Faxa. 943 20 86 99

Martxoaren 13an egin zuten Urteko Batzar Nagusia ...eta kitto! Euskara Elkarteak Urkizuko bere egoitzan. Bazkide batzuk parte hartu zuten, baina beste batzuk falta zirenez, batzarrean hartutako erabakien berri emango dugu jarraian, han berba egindakoei ahalik eta zabal-kunderik handiena emateko asmoarekin.

...eta kitto! Euskara Elkarteak 2008. urteari begira

Gai-ordenari jarraituta, 2007. urteari buruzko balorazioarekin hasi zen batzarra: orohar, iazko urtea elkartearentzat ona izan dela adierazi zuten elkarteko ordezkariak: "Hainbat programari lehentasuna eman zitzaizen ('Illunabarrian', 'Harixa Emoten' eta 'Euskara zerbitzuak') eta publizitatea eta webgunea indartzea helburu izan genituen. Horrez gain, lehenengoz kamisetak diseinatu eta salgai ipini genituen, oso emaitza onarekin. Bestalde, kallean egindako ekitaldietan (Kittonbolia, Sagardo Eguna...) eguraldia lagun izatea oso mesedegarria izan zen azken emaitzarako".

Bestalde, Urkizuko dorreetan egindako lanen ondorioz elkartearen egoitzan uholdeak izan ziren orain urte bi eta 2007an auziaren zati bat konponduta geratu da: "Amenabar enpresak 8.508,55 euro ordaindu ditu, eragindako kalteak ordaintzeko. Elkartearen egoitzan egin beharreko konponketak aurten egingo dira, baina Udalak arazo bat noiz konponduko duen zain gaude momentu honetan, euria egin duen egunetan oraindik ere ura sartzen delako".

AURREKONTUA

Diru kontuei begiratuta, elkar-teak 450.641 euroko aurrekontua dauka 2008rako (pezetatan, 74.980.353) eta autofinantziazio maila %60koa da. Bestalde, bazkide kuotak eguneratzea (4,20 KPI aplikatuta) onartu zen

batzarrean. Horri jarraituta, hauek izango dira kuota berriak: urtean 4,17 euro 16 urtetik behar koentzat, 9,38 euro langabetu, ikasle, jubilatuta eta etxeko-andrendako eta 36,95 euro, berriz, behar ginentzat.

Batzarrean 2008rako proposamenak plazaratu zituzten: al-daketarik nabarmena Gaztedia



EKHI BELAR

sailaren kudeaketa berria izango da (teknikariak jardunaren erdia eskainiko dio eta herriko gazte elkarrekin elkarlanean jardungo du). Horrez gain, 'Harixa Emoten'-en aldaketak izango dira eta, bestalde, publizitateak gora egingo duela aurreikusi dute, aurreko urteko azken hiruhilabetekoaren

emaitzak ikusita. Beste arlo bati begiratuta, Euskara Zerbitzuak saileko gizarteratzeak eta Eusko Jaurlaritzako mahaietan parte hartzeak enpresa gehiago ekartzea espero dute elkartean. Horrez gain, 'Berebetan' programan jauzia egiteko asmoa azaldu zuten, Topagunea Euskara Elkartearen Federazioaren laguntzaren bitartez. Eta azken aldirian itxuraz eta edukiz aldatu den www.etakitto.com webgunean aldaketak egiten jarraitzeko asmoa azaldu zuten. Azken asteotan egindako aldaketen inguruan, aipatzekoa da egunero albistiren bat gehitzen zaiola webguneari, barixakuero paperean kaleratzen den astekaria orde-nagailuan bertan irakurri eta deskargatzeko aukera eskaintzen dela (baita aurreko asteotako aleak ere) eta irakurleari bere iritzia helarazteko bideak zabaldu zaizkiola.

ZUZENDARITZA BERRIA

Elkartearen Zuzendaritza taldearen osaketa, berriz, honela geratu zen: orain arteko kide guztiek jarraituko dute eta horiei Sonia Pérez Anguera kide berria gehitu zaie. Beraz, 2008an presidentea Juan Barahona izango da, presidente-ordea Moisés González, idazkaria Maider Aranberri, diruzaina Marisol Uriarte eta bokalak, berriz, Mireia Agirrebeña, Isabel Arregi, Imanol Bergara, Gaizka Bilbao, Koldo Mitxelena, Juan Mari Pérez, Sonia Pérez eta Amaia Zenarruzabeitia izango dira.

2008ko aurrekontua

IRTEERAK	EUROTAN	%
Langilegoa	221.611	49,18
Funtzionamendu gastuak:		
bulego materiala, garraioa	42.486	9,43
Jardueren antolamendua	45.327	10,06
Inbertsioak	2.500	0,55
Inprenta gastuak	137.217	30,45
Bankoak, Merkatal kobra ezinak	1.500	0,33
GUZTIRA	450.641	100,00

SARRERAK	EUROTAN	%
Publizitatea	201.164	44,60
Mezenazgoak (Kutxa, Eroski)	5.403	1,20
Bazkideen ekarpena	15.143	3,36
Udala (Hitzarmena)	70.947	15,74
Gipuzkoako Foru Aldundia	37.850	8,40
Eusko Jaurlaritza	62.325	13,83
Jaurlaritza Web	6.303	1,40
Foru Aldundia (Inbertsioak)	1.750	0,39
Jardueren bitartez: loteria, Kittonbolia, diseinu lanak... ..	49.755	11,04
GUZTIRA	450.641	100,00

Autofinantziazioa: %60

“Haizea eta sustraiak” dokumental zabala da”

Iñaki Agirre eibartarra da ‘Haizea eta sustraiak’ dokumentalaren egilea. ‘Txiki’-ren inguruko testigantzak jasotzen ditu dokumentalak.


- Zergatik erabaki zenuen dokumentala egitea?

Orain dela urte bat gaurko egoera eta kezkei buruz hasi ginen hitz egiten, horrela, ikusi genuen emigrazioa gai garrantzitsu baten moduan agertzen zela gure solasaldietan eta honekin batera memoria historikoa. Juan Paredes Manot ‘Txiki’-ren bizitza hori genuela ikusi genuen eta horrek zer esan bazuela pentsatu genuen. Bere familia-rekin Euskal Herrira bizitzera etorri zenean, hemengo biztanle kopurua asko hazi zen, 1968 urtean biztanleria kopurua %40-an igo baitzen. Herri batzuetan, Ermua eta Eibarren adibidez, igoera hori handiagoa izan zen, eta talka kulturalak eta abar eman ziren. Hori aztertu

dugu dokumentalean, gaur egun ere hori gertatzen delako.

- Nolako prozesua izan du dokumentalaren ekolozketak?

Lehendabizi ‘Txiki’ zuzenean ezagutu zuten hainbat pertsonen izenen zerrenda egin genuen eta haiekin elkarrizketatu ginen kamerarik gabe, eurek zer esan ahal zuten jakiteko, bai ‘Txiki’, bai orduko testuinguru sozio-politikoaren gainean. Ondoren, gidioa prestatu ostean, bakoitzaren elkarrizketa grabatu genuen. Dokumentalak testigantzak soilik jasotzen ditu, ez dago off-ean ahotsik. ‘Haizea eta sustraiak’ elkarrearen asmoa ez zen gure ikuspuntua erakustea, leku ko zuzenek esaten zutena jasotzea baizik.



- Zailtasunik izan duzue?

Ez dugu aparteko zailtasunik izan. Aipatzekoa da, hala ere, lan honetan 30 pertsonen parte hartzen dutela eta hauetariko bi hil egin direla. Bestalde, bi edo hiru pertsona gehiago elkarrizketatzea nahi izan genuen, baina eurek esan ziguten ez zutela nahi. Beste batzuekin ezin izan dugu elkarrizketarik egin ihes eginda daudelako, beraz, ezinezkoa zen. Esan daiteke dokumentala zabal dela, ez soilik ideologikoki, hizkuntzarekin ere zabala delako, deneri nahi

izan zuten moduan berba egiten utzi zitzaielako.

- Dokumentala aurten ateratu duzue argira. Nolako harrera izan du?

Durangoko Azokan aurteko proiektio bat eskaini genuen, baina lan osoa aurten aurkeztu dugu. Harrera ona izan du eta leku askotatik, ideologia ezberdinak dituzten arloetatik, jaso ditugu zorionak dokumentalagaitik.

- ‘Haizea eta sustraiak’ kultur elkarteak ekoloztu du dokumentala. Zertan egiten du lan elkarte honek?

Orain planteatzen ari gara hemendik aurrera ea zer egin. Elkarte bere lehen bi urteetan inmigratioa eta antzeko gaien inguruan ibili da lanean. Badaude proiektuak inmigranteak laguntzeko, integratzeko, euren kulturak euren semei euskaraz zabaltzeko eta abar. Tolosan gauza hauen inguruan lanean dabiltzan elkarteak badaude, lan interesgarria egiten gainera, Eibarren egin beharko litzatekeenak.

‘HAIZEA ETA SUSTRAIAK’ DOKUMENTALA

Frankismoaren azken fusilamenduetara bueltan eramango ditu ikusleak ‘Haizea eta sustraiak’ izenburuko dokumentalak, ‘Txiki’-ren bizitzatik abiatuta. Atzo Portalean eman zuten lana Iñaki Agirre eibartarraren ekoizpena da eta DVD formatoan jasota dago: 30 lagunen oroitzenetik abiatuta, Jon Paredes Manot ‘Txiki’-ren bizitzari erreposoa ematen dio dokumentalak eta, bide batez, Francoren sasoiko Euskal Herriko testuinguru sozopolitikoaren azterketa egiten da. Grabazioak Zarautz, Hondarribia, Lazkao, Itsasondo, Donostia, Nuarbe, Zestoia, Azpeitia, Orio, Leioa, Gasteiz, Bartzelona, Valladolid eta Ferrolen egin dituzte. Ordu eta erdiko iraupena du dokumentalak eta lau hizkuntzatan azpititulatu dute: euskeraz, katalanez, gaztelerez eta ingelesez. DVDa salgai dago (informazio gehiagorako haizeaetasustraiak@yahoo.es helbidera idatzi eta, dokumentalaz gain, ‘Haizea eta sustraiak’ kultur elkartearen jarduerak jasotzen dituen bideoa eta lau abestirekin osatu dute: ‘Gure lagunei’ (Josean Larrañaga ‘Urko’), ‘Irailak 27’ (Gorka Knörr, argitaratugabea, 1976ko abuztuan Anoetan abestu zuena), ‘Hasta siempre comandante’ (Carlos Puebla) eta ‘Al Alba’ (Luis Eduardo Aute).

Haizea eta sustraiak



Arrateko eskubaloilariak bide onarekin jarraitzeko asmoz

Eskubaloiko gure lehen taldeak garaipen garrantzitsuak kateatu ditu azken jardunaldiotan. Horrela, CAI Aragonen aurrean erraz nagusitu eta gero (ez da, gainera, aragoiarrei errepaso bikaina ematen dieten aurrea), Granollersen ere Ipuruan euren izandako porrotaren mendekua hartu zuten herenegun 32-34 partidua irabaziz, eta Jurkiewicz-ek berak bakarrik 15 gol sartzea lortuz. Tartean, baina, ez dute atsedean handirik hartu eibartarrek eta Euska-

diko Kopa ere bereganatu zuten Hondarribian, Hondartza kiroldegian 35-30 nagusitu ziren Barakaldoren aurrean.

Azken partidu horretan, Asobal ligan gutxi jokatzen diharduen Rudovic izan zen goleatzailerik nagusia, 7 tantorekin, Jurkiewicz (6) eta Arrieta eta Kobinen (5na baikoitzak) aurretik, eta Moyua gazteak Malumbresi lagunduz eibartarren atea zaintzen.

Teka Asobaleko sailkapenean azken tokian dagoen taldeak bisitatuko du bihar Ipurua



Azken jardunaldietako garaipenei, Euskadiko Kopa gehitu diete Arratekoek azken egunotan.

kiroldegia (19.00etan) eta Arratekoek ondo egingo dute konfiantza larregi ez hartzean, ez da lehenengo aldia-eta horrelakoetan kale egin dutela.

Kantabriarrei irabaztearekin, 7. postua gero eta ziurtatuago izango lukete Viktor Debreren gizonek, horrekin batera, baita Europar jokatzeko aukera ere.


Urbateko bi Espainiako igeriketa txapelketan

Maider Perales eta Markel Alberdi Urbat-Urkoitronikeko igerilariak Xixonen daude, atzo hasi eta domekara arte bertan jokatzen diren junior mailako Espainiako igeriketa txapelketan parte hartzen. Gipuzkoako eta Euskadiko txapelketetan izandako markek ahalbidetu dituzte bata zein bestearen partehartzeak eta, horrela, 14 urteko Mainerrek lau probetan jardungo du: libre estiloko 50 eta 100 metroetan eta distantzia bereko bizkar erakoetan. 16 urteko Markel Alberdik, bestalde, libre estiloko 50, 100, 200 eta 400 metroko probetan jardungo du.

Eibarko igeriketa taldeko infantil mailako ordezkariak, bestalde, Ordizian izango dira asteburuan Euskadiko txapelketa baitago jokoan.

Kalamuako karatekak Guarnizon

Zapatuan San Jose judo torneoaren XIII. edizioa jokatu zen Astilleroko Guarnizon eta, bertako Guillermo Cortés kiroldegian izandako lehiaren ondoren, gure herriko Kalamua karate taldekoek hiru domina bereganatu zituzten: Julen Ramonek eta Eneko Loresek urrezkoa eta Jon Murillok brontzezkoa. Guztira 175 neska-mutil izan ziren parte hartzen.



Hiru urrezko Peralesentzat Euskadikoan

Maider Peralesek nagusitasun handia erakutsi zuen Tolosan jokatutako junior, promesa eta absoluto mailako Euskadiko txapelketan. Bizkar eran bere parekorik ez duela erakutsi zuen Urbat-Urkoitronikeoak eta 50, 100 eta 200 metroko probetan lehena izan zen igerilekuaren bazterra ikutzen. Markel Alberdi 3.a izan zen 200 eta 400 metroko libreetan eta, bi juniorrekin batera, Aitzol Arrillaga seniorra 4.a izan zen bizkar erako 100 metrokoan.



Manu Agirre Kalamuako ordezkaria, Guarnizona joandako karatekekin.



LEIRE ITURBE

Abascal Memoriala Michelingo Alain Gonzalezentzat

Kadete mailako XXIX. Abascal Memorialak 99 txirindulari izan zituen irteera puntuan, 1. urtekoak batzuk eta 2.ekoak beste batzuk. Horietatik erditik gora helmugaratu zen (66 txirindulari guztira) eta, euren artean, Michelin taldeko Alain Gonzalez izan zen nagusi Urkizuko helmugan, esprintean berarekin zetozen Loic Chetout (Aviron Bayonnais) eta Mikel Aristiren (Sumofic) azken pedalkadak gaindituz. Ordubetan, 18 minutu eta 36 segundo behai izan zituzten hiru txirindulari horiek eta 18''ra helmugaratu zen Loinazeko Ion Garmendia. Tropel nagusia minutu eta hiru segundora iritsi zen Urkizun kokatutako helmugara.



LEIRE ITURBE

Escuderia Eibarko pilotoak III. Rallyestonean asteburuan

Escuderia Eibarko Ruben Morok (gidaria) eta German Gonzalezek (pilotukidea) Porsche 924 2.0-arekin III. Rallyestonean hartuko dute parte gaur, bihar eta etzi. Aurtengo edizioko ibilbidea 1.000 km-koa izango da, eta horietako bi herenak kronometratuak izango dira asfalto eta lurreko errepideetatik abiatuz.

Eibartarren helburua lehen hogei posuetan sailkatzea da eta eurek aipatzen

duenez, "sekulako arrakasta izango litzateke lehen hamarren artean sailkatzea".

Gaur Eibartik

Lasterketa, bestetik, gaur 10.00etan hasi da Bilboko Arenalean. Gaur bertan, 23.45etan, Eibartik pasatuko dira autoak eta Bilboko Sheraton Hotolean amaituko da etapa. Biharko eta etziko etapek Sheraton Hotela izango dute abiapuntu eta helmuga lekua.

Arrateko jubenilak Euskadiko azpitxapeldun

Partidu bakarra galduta denboraldi osoan; hala ere, Arrateko mutilek ezin izan dute jubenil mailako Euskal Liga bereganatu. Beste partidu guztiak irabazita, baita Bidasoa liderrari ere, eta hala ere bigarren. Parekotasun handia izan da Irungo eta Eibarko taldearen artean eta irundarrak Ipuruan bategatik galdu zuten moduan, eibartarrek gol biko aldeaz eman zuten amore lrunen: gol bakar horrek erabaki du azken behinbetiko sailkapena.

Fernando Fernándezek eta Pablo Aranzetak entrenatutako taldeak 21 garaipen

eta porrot bakarra izan du denboraldian. Eibartarrak izan dira gol gehien sartu dutenak (ia 800 guztira, 36tik gora partiduko) eta 538 jaso dituzte (24na). Meritu handiko emaitza eskuratu dute taldeki-deek, ez baita ahaztu behar gehienak 1. urteko jubenilak direla; horrek itxaropen handienak pizten ditu hurrengo denboraldiari begira.

Hemendik aurrera, apirilaren 25a eta 27aren artean jokatu den Espainiako Txapelketako fase sektorea prestatzeari ekingo diote Arratekoek, oraindik jakin ez arren non jokatu den fase hori.

Salamanca bisitatuko du Eibarrek domekan

Eibar KE-k Salamankaren aurka jokatu du domekan 18.00etatik aurrera Helmantiko futbol zelaian. Javier Mandiolak Manel eta Etxaberen bajak izango ditu neurketa onetarako, eta Martino eta Txiki Acazen partehartzea zalantzan dago eta ez da azken unera arte argituko. Del Olmok, bestalde, jokatzeke aukera izango du zeuzkan minak gaintu ostean. Talde armaginak etxetik kanpo garaipena lortu nahi du hilabete biren ostean (Ferrolgo Racingen aurka urtarrilaren 27an 1-3 lortu zuen etxetik kanpo azken garaipena). Etxean, hala ere, bikain ari dira goriurdinak. Joan den asten Teneriferi 4-0 gailendu zitzaion talde armagina Goiriaren hiru golekin (bestea Natxo Insak sartu zuen).

Kontratuak berritu

Denboraldia amaitzeko 12 jardunaldi falta badira ere, Eibar KE datorren urtera begira ari da lanean. Horrela, talde eibartarrak Roberto Lombraña eta Lluís Codinaren kontratuak berritu ditu 2010 urtera arte. Jokalari bi hauen ostean, talde armaginak Jon Urzelai eta Jon Altunaren kontratuak ere berritu nahi ditu.

Kuotak berrizteko epea

Kuota banketxe batean helbideratu gabe daukaten Eibarreko abonatuak apirilaren 3ra arte dute berriztapena egiteko denbora. Hortik aurrera, kuota ordaindu ez dutenei sarrera ukatuko zaie. Karneta berriztuta geratuko da urtarrilera arte.

Foball-zaletuen partiduak

Bihar, zapatua: Areto-Akats (08.30), Agiñaspi-Azkena (10.00), eta Vivaldi-EzDok (11.30). Etzi, domeka: Durango-Sporting (09.00), eta JoseAutos-Tankemans (09.00, goiko zelaian) eta Teknografik-Txoko (10.30).

Debarrena-Kirolgiko neskak Frantzian

Emakumezkoen Frantziako Kopako bigarren proba izan zen jokoan astelehenean eta han izan ziren Saioa Olite, Naiara Telletxea, Inma Rafael, Itsaso Leunda eta Maitane Telletxea; Ane Mendiak, Nekane Lasak eta Maria Gallastegik bajan jarraitzen baitute euren istripuetatik errekuperatzen. Béatrice Thomas eta beste lau iheslariren atzetik, 45 laguneko tropelean helmugaratu ziren Telletxea eta Olite Debarrena-Kirolgikoak.



Rugbilarien promozioa hasiko da domekan Unben

Denboraldi osoan egingako lanaren fruitua jasotzeko ordua heldu zaio Eibar Hierros Anetxeri eta iaz lortu ezin izan zutena oraingoan lortzeko helburuarekin zelairatuko dira domekan, eguerdiko 12.00etan, Unbera Iñaki Laskurainen mutilak. Eibartarrak Daniel Neman entrenatzaile argentinararen tokia hartu du, azken honek zaila zuelako bere funtzioak betetzea.

Iaz igoerako promozio fasean eibartarren aurkaria Arquitectura historikoa izan bazen, oraingoan L'Hospitaletetik, beste historiko batek, egingo die




L'Hospitalet izango dute aurrean eibartarrek promozioeko lehenengo partiduan domeka eguerdian.

aurre eibartarren asmoei. Hirugarren urtea da, jarraian, gure herriko senior mailako rugbilariek,

promozioeko partidua jokatzeko aukera dutela eta, aurrekoetan moduan, beharrez-

koa izango dute oraingoan ere zailtuen bultzada. Ikuskizuna, gogo bizia eta joko kementsua ziurtatuta daude eta zailtuek gozatzeko aukera paregabean izango dute Unben domeka eguerdian, gero Kataluniako lurretan, guztiz kontrako giroari egin beharko baitiote aurre Eibar Hierros Anetxekoek.

Partidurako, gainera, Iñaki Laskurain entrenatzaileak jokalaririk guztiak izango ditu, azken orduan Iker Soraluze eta Iñaki Aranguren ere jokatzeko moduan izango baitira, bat lesio luze batetik osatuta eta bestea Estatu Batuetan lan egin eta gero handik bueltatuta.



Lehiaketa garrantzitsuak gure pelotarientzat

Euskal Ligakoa bat eta GRAVN Torneokoa bestea, neurketa esanguratsuak izango dituzte Deportiboko pelotariak biharkoan. Horrela, Egaña Astelenan galdutako 13-22koari buelta ematen saiatuko da Munitbarren, bertako Malaxetxebarraren aurka, 15.30etatik aurrera. Ordubete geroago, GRAVN Torneoko 3. partidua jokatu du Bengoetxeak, Gipuzkoa ordezkatuz, Arabako ordezkararen aurka Tolosan. Azken jardun-

naldian, eibartarrak 22-21 irabazi zion Bizkaiko ordezkaritari partidu gogorra jokatu ondoren.

Bestalde, Klub Deportiboko bikote bik Udaberri Torneoko finalerdietan sartzea lortu dute: seniorretan Karmenak eta Arrillagak osatutakoari, Zubizarreta eta Unamunzaga jubenilena gehitu behar zaio. Hidalgo-Alvarez jubeniletan eta Leturiaga-González kadeteetan torneotik kanpo geratu dira azken jardunaldian galdu eta gero.

Gipuzkoako hiru txirlo txapelketa

Hiru txirlo bolo txapelketa berria hasiko da asteburuan: oraingoan Gipuzkoakoaren XXXIX. edizioa da jokoan izango dena. Bihar jokatu da txapelketa horretako 1. jardunaldia Soraluzeke Txurruka bolatokian, arratsaldeko 17.00etan hasita, eta jarraipena izango du zapatuero

ordu berean honako beste zortzi bolatokitian: apirillean, Elgoibarko San Pedron (5), Soraluzeke San Andresen (12), Debako Lasturren (19), Eibarko Asola Berrin (26); eta maiatzean, Azkoitiko Floreagan (10), Elgoibarko San Roken (17), Elgoibarko San Miguelen (24) eta Elgetan (31).

Euskadiko xake txapelketak jokoan Laboralean

Martitzenean hasi ziren gure herriko Unibertsitate Laboralean kadete eta jubenil mailako Euskadiko xake txapelketak, Euskal Xake Federazioak eta Eibarko Klub Deportiboak antolatuta. Lau lurraldeetako xakelariak batzen dituen txapelketan, 41 jokalaririk dira, guztira, bihar amaituko den lehiaren parte hartzen dihardutenak. Jokalaririk bakoitzak ordu eta erdi du partida jokatzeko eta, egindako jokaldi bakoitzeko, beste minutu erdi bereganatzen du. Eibartarren aldetik, Diego Olmo, iaz kadeteen azpitxapeladuna izandakoarekin batera, Haritz eta Julen Garro eta Edu Olabe daude txapelketan; hori iazko txapeladunak ere (Alvaro Díez jubeniletan eta Mikel Sanz kadeteetan).

4-0 play-offa hasteko

Ziburun hasi zuen Eibarko Klub Deportiboko bigarren taldeak 3. mailatik 2.era igotzeko fasea eta 4-0koa sartu zion Iparraldeko ordezkaritari. Edu Olabe, Julen Garro, Mikel Larreategi eta Mikel Baena, laurak izan ziren garaile.



Iazko edizioeko txapeladunak Unin.

700 jarduera kultural jaso zituen Eibarrek iaz

Kontzertu, antzerki erakustaldi, erakusketak, zinema emanaldi eta bestelako jaialdiren artean 700 jarduera kultural jaso zituen Eibarrek 2007an. Mari Jose Telleria eta Jose Luis Gonzalez Udaleko Kultura arduradunek esan zuten, "datuek diote jarduera asko direla eta pluralak, sektore eta gustu guztiei zuzendurikoak".

Urteko balantzean ikusi daitekeenez, Portaleak 188.596 pertsona jaso zituen iaz eguneroko pertsonen batazbestekoa 570ekoa izan zelarik. 331 egunetan egon zen zabalik iaz Portalea eta denbora tarte horretan 115.992 pertsonen erabili zuten liburategia (hilabete bitan itxita egon zen), 9.344 pertsonen margo marrazki eskola, 3.328 pertsonen zeramika eskola, 13.389 pertsonen musika eskola, 12.800 pertsonen dantza gela, 8.004 pertsonen erakusketa aretoa eta 5.221 pertsonen bisitatu zuen Armagintza Museoa.



EKHI BELAR

Erakusketei dagokionez, 8.044 pertsona hurbildu ziren hauetara erakusketa artistiko, didaktiko/etnografiko eta Eibarko taldeenak batzen baidira. Urteko lehiaketetan, bestetik, 638 pertsonen hartu zuten parte 2007an.

Coliseoak bere lehen 9 hilabeteetan 16.675 pertsona jaso zituen denbora tarte horretan egin ziren 69 emanaldietan. 500 ikuslentszako edukiera izanda, 242 pertsona jaso zituen ekitaldiko Coliseoak, hau da, bere edukaren %48,33.

Udalekueetan izena emateko epea zabaltzear

Eibarko Gazte Informazio bulegoa astelehenean, martxoaren 31n hasiko da Gipuzkoako Foru Aldundiko udalekuek joan nahi dutenen izen-emateak tramitatzen Portaleko lehenengo solairuan. 7 eta 13 urte bitarteko umeek aurreinskrizioa egiteko epea astelehenean zabaldu eta apirilaren 9an itxiko da. 14 eta 17 urte bitarteko gazteen kasuan, berriz, epea apirilaren 17tik 25era bitartekoa izango da. Urteroko moduan, udalekuen es-



kaintza aisialdi, kirol eta abentura jarduerekin osatuko dute eta hizkuntzak lantzeko aukera ere egongo da. Hogei bat udaleku dago Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroan eta horien artean aukeratu dezakete ume eta gazteek, bakoitza-

ren gustu eta nahien arabera. Udaleku bakoitzaren inguruko informazio guztia Gipuzkoako Foru Aldundiaren webgunean (www.gipuzkoagazteria.net/udalekuak) aurkituko duzue. Izena on-line emateko aukera ere badago.

Lau andraren bizipenak astelehenean Coliseoan

La Trapera antzerki taldeak 'Cruzadas cotidianas' antzelana eskainiko du astelehenean arratsaldean, 20.30etatik aurrera Coliseoan. Ikuskizuna Eibarko Emakumeen Mahaiak, emakume taldeek eta Udalak Mar-



txoaren 8aren inguruan antolatutako programazioaren barruan eskainiko da, eta sarrerak euro bitan daude salgai. Antzezlanak lau emakumeren esperientzia jasotzen du; pertsonaia bakoitzaren bizipenak gaurkotasun handiko gairen batekin lotuta daude (pertsona nagusien zaintza, inmigrazioa, lana eta familia bateratzeko zailtasunak, lesbianen osatutako bikoteak...) eta umore puntu batekin azaltzen dituzte, egoeren gordintasuna albo batera laga barik. Bruno Ciardiak zuzentzen duen lana Cristina Castillo antzezleak idatzi du eta protagonistetako bat ere bada. Castillok 21 urteko ibilbidea egin du antzerki munduan eta berak idatzitako lehenengo antzezlanak 'Ser o no ser...visible' (2006) arrakasta handiarekin antzeztu da toki askotan.

Laburrak

GEMINI OPERAZIOA

Bikien bazkaria apirilaren 6an izango da, beraz joan nahi duenak izena emateko egun gutxi du, horretarako azken eguna apirilaren 3a izango baita. Informazio gehiagorako edo izena emateko 943530193 edo 608207867 telefono zenbakira deitu daiteke.

ERRIOXARA TXANGOIA

Apirilaren 12rako Errioxara txangoa antolatu du Beheko Tokia jubilatutako etxeak. Izena emateko epea aurreko astean zabaldu zuten eta joan nahi duenak lehen bileran eman beharko du izena jubilatutako etxean bertan.

HITZALDIA

Datorren eguaztenean, martxoaren 2an, Eibarko DYaren egoitzan (Pagaegi kalean) bularreko minbiziari aurrea hartzeko hitzaldia eskainiko dute 19.00etatik 21.00etara. Hitzaldian aholku teoriko eta praktikoa landuko dira, autoazterketa nola egin behar den barne. Sarrera libre da. Informazio gehiagorako 943464622 telefono zenbakira deitu daiteke.

TXOTXONGILOAK

Datorren barixakutik aurrera zirkoa eta txotxongiloak protagonista izango dira Portaleko erakusketa aretoan, Corrado Masaccien eskutik. Erakusketa ohiko ordutegian egongo da zabalik, apirilaren 20ra arte.

Hitzaldia eta irakurketa tailerra

Elikadura osasuntsuagoa lortzeko bideak azalduko ditu Aitzol Alzibar-ek Beheko Tokian, apirilaren 10ean 17.30etatik aurrera emango duen hitzaldian. Ordu berean baina apirilaren 7an, berriz, Untzagako jubilatutako zibergelan nagusientzat irakurketa-tailerra eskainiko du Nacho Martín García, 'Donde el corazón te lleve' testuarekin. Ekitaldi biak La Caixa fundazioak antolatu ditu, Bizturekin elkarlanean. Izena emateko, deitu lehenbailehen 943-701921 telefono zenbakira.



Derrepente

Derrepente bizimodu eroso pikutara doa. Hasieran, pareta antzekoa ikusten da; hortik aurrera, oztopo barik, amildegia zuzenean. Beti desiatzen erutina apurtzea; baina, horren orde, bertigoa azaltzen da. Diox!! Ez naiz batere ausarta.

Derrepente erreferentziak mugitzen dira, nereak eta ondokoenak. Ni ez naiz ni. Ni naiz albokoek nahi dutena, edo pentsatzen dutena. Nola zen ispiluaren istorioa? Errealitatea ala irudia. Zerekin geratzen gara?

Derrepente telefonoak ez du seinalik ematen.

Derrepente bankuak ez du dirurik ematen. Alderantziz: zorrak, izardia, isiltasuna... Baizara edo ez zara, alfa ala beta, Atletik ala Erreala... Ez!!!! Hauek hirugarren mailara jaisten badira, nere 'marroiak' ez dira desagertzen.

Derrepente amildegia... ezereza... ez dago aukerarik... ez dut nahi, baina... pausua eman behar da. Eupp!!! Bai zera!!! Banoa, ez dakit nola. Ez da gelditu behar, aurrean argi txiki bat ikusten da... **fedea**, bai: **fedea**.

Nork esan zuen rock and rolak ez zeukala etorkizunik? Bai zera!!!!

Datorren apirilaren 4an Rosendo Mercadok kontatuko du "la verdad infusa" Donostiako Velodromoan. Carabancheleko 'poeta santua'-k botako du denontzako bedeinkapena. Hori bai, sarrera ordaindu eta gero:

*Continuamente se extraña
la gente si no puede
ser verdad
que de repente,
tan fácilmente,
material sin estrenar.
De nada entiendo,
pero me defiendo
con la goma de borrar.
Y me sorprende
de cómo vendo
material sin estrenar.
Parece caro,
pero no me paro;
y sin volver un paso atrás,
entro de frente,
contra la corriente,
material sin estrenar.
"De repente" (Rosendo)*

Iñaki Zubillaga

Eibar KE-ri buruzko dokumentala

Datorren asteko barixakuan estreinatuko da Eibar kirol elkarteari buruzko dokumentala Coliseo antzokian, 20.00etan. Hasieran emanaldi bakarra aurreikusita zegoen,

baina sarreren aurrealmentan oso arrakastatsua izan dela ikusita, bigarren emanaldi bat egongo da apirilaren 6an, 19.00etatik aurrera.

Jorge Llamas eibartarraren eta Cecilia Borja nafarraren karrera amaierako proiekturako egindako lanaren emaitza da laster ikusi ahal izango dugun dokumentala. Gazte biak Nafarroako Unibertsitate Publikoan Telekomunikazio Ingeniaritza ikasitakoak dira eta dokumentalean talde gorri-urdiaren historiari errepaso egiten diote eta, lana osatzeko, hainbat elkarrizketa eta irudi gehitu dizkiote. Sarrarak aldeztu erosteko moduan daude, ohiko bideak erabili (Servikutxa, Telekutxa, internet edo Coliseoan bertan).



Jorge Llama eibartarrak eta berarekin proiektua aurkeztu duen Cecilia Borjak Eibar Foball Taldearen historia berreskuratu dute.

Eibarko Artisten Elkartekoaren erakusketa

Gaur arratsaldean, 19.00etan inauguratuko dute Portaleko erakusketa aretoan Eibarko Artisten Elkartearen taldekako erakusketa. Elkarteko hainbat artistak euren artelanak ikusgai ipiniko dituzte apirilaren 20ra arte ohiko ordutegian (martitzenetik domekara, 18.30etatik 20.30etara) bisitatu ahal izango den erakusketan.

Orotariko lanak ikusteko aukera izango da, 50 bat, baina, ohikoa denez, pintura nagusituko da



denen artean, azken aldiaren elkarteko kideen artean zur-lanketa asko igo den arren. 60ko hamarkadan sortu zen Eibarko Artisten Elkartearen 160 bat bazkide dago gaur egun eta azken 15 urteotan Juan Serrano izan da elkarteko lehendakaria. Pagaegi kaleko lokalera kideetako batzuk baino ez dira joaten, baina urtean zehar egiten diren ekitaldi nagusietan (urteroko erakusketa eta txango kulturaletan) bazkide askok hartzen du parte.

Bizet-en 'Carmen' opera apirilean

Coliseo antzokiak goi mailako opera ikuskizuna hartuko du apirilaren 11n, San Petersburgo-ko Opera eta Ballet konpainiaren eskutik: XIX. mendearren hasierako Sevillan girotutako 'Carmen' lana eskainiko dute konpainiako artistek, izenburu bereko liburuan oinarritutako opera eta Georges Bizet-ek idatzitako lan ezagunetako. Lana lau ataletan banatuta eskainiko dute ikuskizunean parte hartuko duten 30 abeslari baino gehiagok. Mundu mailako ospea duen Errusiako konpainiak musika arloan gorenean dauden zuzendari eta abeslariak batzen ditu eta iazko azaroaz geroztik Espainian zehar emanaldirik-emanaldi dabilta, oso produkzio ezagun bi eskaintzen: Bizet-en 'Carmen' eta Verdi-ren 'Traviatta'. Operarako sarrerek laster ipiniko dituzte salgai (Servikutxa,


www.kutxa.net eta 943001200 telefonoan edo, bestela, Coliseoko leihatilan, martitzenetan 20.00etan edo emanaldia hasi baino ordubete lehenago).





Debako Musika Bandaren kontzertua bihar


Luzaroan Elbarren kontzerturik eman ez duen Debako Musika banda zuzenean entzuteko aukera izango da bihar arratsaldean, 18.00etatik aurrera Coliseoan. Fernando Urainek zuzentzen duen Musika Bandan musikari gazte eta helduek bat egiten dute, baina kasu guztietan eskarmentu handia dute eta kalitatezko emanaldia eskaintzeko gogo biziz ailegatuko dira gurera. Iaz geroztik Eibarko Cielito Musika Bandarekin emanaldi-trukea egiten dute debarrek eta kontzertu honekin eibartarrek abuztuan Debara egindako bisitari erantzun nahi diote.



Pedrucho-koak Salamancara

Elbarko Pedrucho Zezenzaleen Elkartekoak Salamancara joango dira asteburuan, Elbar taldeak han partidua jokatzeko duela aprobetxatuta. Bihar goizeko 07.00etan irtengo dira Ego Gain autobus geltokitik eta, bidean hamarretakoa hartu eta gero, 13.00a aldera Las Veguillas-eko 'Charro de Llen' ganadutegia bisitatuko dute. Bazkaldu eta Cuqui de Utrera-rekin bigantxak probatzeko aukera izango dute. Ondoren hotelera joango dira, atsedean hartu eta hurrengo egunerako prestatzeko. Domeka goiza libre izango dute, bakoitzak nahi duena egiteko eta arratsaldean 'Helmántico' zelairaino joango dira, Salamanca eta Eibar taldeen arteko norgehiagoka ikusteko. Astebururako plan biribila.

Luis Cerron elgoibartarrak 'Friego, luego existo' liburua argitaratu du. Sukaldetik egindako hausnarketan, psikopedagogo, familia-orientatzaile eta idazleak esperientzia pertsonalak eta ingurukoak islatzen ditu, etxeko jarduerak elkarbanatzea bultzatuz elkarbizitza hobe baten bidean.



LUIS CERRON, PSIKOPEDAGOGOA: "Nire planteamenduak esperientzian du oinarri"

- 'Friego, luego existo' liburua idatzi duzu. Zelan izan da zure helburua liburu honekin?

Liburuan jorratzen den gaia oso garrantzitsua da eta nahi nuena zen irakurtzeko erreza izan zedila, jarri eta kolpean irakurtzeko modukoa. Irakurtzeko azkarra, erreza, letren tamaina egokiarekin eta formatu erakar-garriarekin, horrelakoa da liburua, eta ikusten denez eta esaten didatenez, helburu hori lortu dut. Egun batean, adibidez, bere bizitzan sekula liburu bat ere irakurri ez duen emakume batek esan zidan nire liburua erosi zuela irakurtzeko.

- Zertan datza liburuak?

Liburua lehendik neukan idatzita, horrela, argitaratzea erabaki nuenean moldatu egin behar izan nuen aurretik idatzitakoa eta, baita piskat bigundu ere. Izan ere, orain ez naiz idatzi nuen garaiko berbera, orduan gauza batzuk era gordinean esan behar zirela uste nuelako, baina gaur egun ezin nuke horrela idatzi, pertsona guztien funtzionamendua ulertu egin behar dela uste dudalako. Kontatzen dudana da, umorea eta ironia erabiliz, emakume eta gizonezkoen historia etxeko jardueren inguruan.

- Idazten duzun lehen liburua da?

Argitaratzen dudana lehen gauza da, hala ere, aurretik banituen hainbat gauza idatzita maila pertsonalean eta hezkuntza munduan kontutan izatekoak direnak. Heldu da momentu bat gauza hauetaz asko hitzegi-

ten dena, horrela, askok esaten zidaten ea zergaitik ez nuen idatzitakoa argitaratzen eta azkenean animatu egin nintzen.

- Kutsu autobiografikoa du liburuak?

Nire planteamendu batzuk agertzen dira eta tituluak adierazten duen bezala, ni naiz harrikoa egiten duena. Bidaltzen dudana mezua, nik egiten dudalako bidaltzen dut. Horrela, nire esperientzian oinarrituta hainbat gauza planteatzen ditut. Hala ere, esperientzia pertsonalaz gain, inguruan entzundako eta bizitako kontuak ere islatzen ditut, ez dut ezer asmatu. Emakume asko etorri zaizkit esanez liburuan irakurritakoa euren senarrek askotan esaten dutela. Jendeak euren eguneroko bizitza islatuta ikusi du liburuan. Erabiltzen dudana hizkuntza oso arrunta da, kalekoa, baina hizkuntzaren erabileraz ez-sexista erabiltzen eresaiatu naiz, hori egitea posible dela ere adierazteko.

- 'Gizona lanean eta emakumea etxean' dioen leloari eusten zala?

Hori errealitate bat da eta onartu behar da. Hala ere, nik ikusten dut errealitatea oso zabala dela eta beste errealitate batzuk ere badaudela. Beste errealitate batean, emakume eta gizonezkoak ez dira berreizten, pertsonak bezala dira hartuak eta errealitate horretan pertsonak egiten dituzte gauza guztiak. Horrela, nik ikusten dut errealitate hori zabaltzen doala eta gehiago zabalduko dela sinisten dut.

telefono jakingarriak

SOS deiak..... 112
 Pegora010
 Udaletxea943 70 84 00
 Portalea943 70 84 39
 Udaltzaingoa.....943 20 15 25
 Mankomunitatea.....943 70 07 99
 Debegesa943 82 01 10
 KIUB943 20 38 43
 Epaitegia943 03 34 00
 Iberdrola.....901 20 20 20
 Naturgas.....902 12 34 56
 DYA Larrialdiak...943 46 46 22
 Gurutze Gorria....943 22 22 22
 Mendaro osp.....943 03 28 00
 Anbulategia.....943 03 25 00
 Torrekua943 03 26 50
 Errepideak.....902 11 20 88
 Ertzaintza943 53 17 00
 Eusko Tren.....902 54 32 10
 Pesa902 10 12 10
 Taxiak943 20 30 71
943 20 13 25
 Alkoholiko Anonimoak 629 14 18 74

autobus ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Egutero: 07.00, 08.50, 10.30, 13.30 eta 18.30. Laneguna: 08.00, 15.30, eta 20.30. Jaieguna: 09.30 eta 20.30. DONOSTIA-EIBAR. Egutero: 12.30, 15.00, 17.30, 19.30 eta 20.45. Laneguna: 07.00, 09.30 eta 13.30. EIBAR-BILBO. Laneguna: 06.40etatik 20.40etara orduro. Zapatua eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara orduro. BILBO-EIBAR. Laneguna: 06.40etatik 21.40etara orduro. Zapatua eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara orduro. EIBAR-GASTEIZ. Egutero: 06.15, 10.45, 14.45 eta 18.45. Zapatua: 06.45, 10.45, 14.45 eta 18.45. Jaiegunak: 08.45, 10.45, 14.45, 16.45, 18.45 eta 20.45. GASTEIZ-EIBAR. Egutero: 08.30, 12.30, 16.30 eta 20.30. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 16.30, 18.30 eta 20.30. EIBAR-IRUÑA. Laneguna: 07.45 eta 13.30. Jaiegunak: 07.30 eta 18.00. IRUÑA-EIBAR. Laneguna: 10.45 eta 18.00. Jaiegunak: 10.45 eta 21.00. EIBAR-ARRATE. Zapatua: 14.15. Domeka eta jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. ARRATE-EIBAR. Zapatua: 14.45. Domeka eta jaiegunak: 09.30, 10.30, 11.30, 13.30 eta 18.30. EIBAR-ELGETA. Laneguna: 13.30 eta 20.20. Domeka eta jaiegunak: 12.00 eta 19.00. ELGETA-EIBAR. Laneguna: 14.00 eta 20.50. Domeka eta jaiegunak: 12.30 eta 19.30. ERMUA-MENDARO. Asteleheneretik ostiralera: 06.20, 07.10, 07.50 (07.50etatik 22.20etara orduerdiro). Zapatua-Domeka-Jaiegunak: 06.50-etik 21.50-era orduro. MENDARO-ERMUA. Laneguna: 06.55etatik 21.55etara orduerdiro. Zapatua-Domeka-Jaiegunak: 07.55-etik 21.55-era orduro.

tren ordutegiak

EIBAR-BILBO. Lanegunak: 06.13etatik 21.13etara orduro. + 10.35 eta 21.38. BILBO-EIBAR. Lanegunak: 05.57etatik 20.57etara orduro. + 09.34 eta 20.18. EIBAR-DURANGO. Egutero: + 22.18. EIBAR-DONOSTIA. Lanegunak: 06.13etatik 20.13etara orduro. + 10.35 eta 21.38. DONOSTIA-EIBAR-ERMUA. Lanegunak: 05.47etatik 20.47etara orduro.

eguraldia

Euskal Meteorologia Agentziatik

HOBETZEN

BIHAR egunez **ateri** izango da, baina **gauerako euria** bueltatzea espero dute, arratsaldean hodeiak ugartuz joango baitira. Tenperaturak **epeltze aldera** egingo du eta maximoak 20 °C inguruan kokatuko dira. **DOMEKAN**, berriz, **lainoak eta ostarteak** izango dira, tarteka-marteka euria eginez.

29 zapatua

KONTZERTUA

18.00.- Debako Musika Bandaren kontzertua. Coliseoan.

31 astelehena

ANTZERTIA

20.30.- "Cruzadas cotidianas". La Traperak eskainia. Sarrera: 2 euro. Coliseoan.

1 martitzena

EIBAR ZINE KLUBA

21.30.- 'Fast food nation' (Zuz: Richard Linklater). Sarrera: 3'50 euro. Coliseoan.

2 eguaztena

OLIO BIRZIKLAKETA

09.00/13.00.- Etxean erabilitako olio eta elektrogailu txikiak birziklaketeko zerbitzua. Rialto pareran.

HITZALDIA

19.00/21.00.- "Bularretako autoazterketa", jardunaldi irekia DYArean eskutik. Pagaegi, 5 behean.

3 eguena

IKASTEN

11.30.- Bideokonferentzia: "¿Qué hacemos con los menores infractores?". Hizlaria: Jose Luis de la Cuesta (EHUko irakaslea). Hezkuntza Esparruan.

erakusketak

Martxoaren 30era arte

Shakti Olaizola-ren erakusketa. **Portalean**.

I. Zuloaga Institutoko arte-batxilergoko erakusketa. **Topalekuan**.

Martxoaren 31ra arte

Gaizka Bilbao-ren argazki erakusketa. **Deportiboan**.

Fernando Oregi-ren argazki erakusketa. **El Ambigún**.

Bakarne Elejalde eta Virginia Arakistain-en argazki erakusketa. **Portalea tabernan**.

Apirilaren 20era arte

Eibarko Artista Elkartearen erakusketa. **Portalean**.

lehiaketak

VIII. Eskola-Bideo lehiaketa

Epea: **Martxoaren 30era arte**. Informazioa: La Salle Azitain. Telefonoa: 943121698. lsallensae@planalfa.es

Sanjuanak 2008

Eibarren kartel lehiaketa

Epea: **Maiatzaren 16ra arte**. Informazioa: Pegora eta Portalean.

Alkohol larregi edatearen kontrako pegatina lehiaketa

Epea: **Maiatzaren 16ra arte**. Informazioa: Pegora eta Portalean.

Eskola Agenda 08-09 azala diseinatzeko lehiaketa

Epea: **Maiatzaren 16ra arte**. Informazioa: Pegora eta Portalean.

ikastaroak

Zeramika ikastaroa

Noiz: **apirilaren 1etik 24ra, martitzen eta eguenetan**. Ordu-tegi bi (17.00etatik 19.00etara eta 19.00etatik 21.00etara), Portalean. Matrikula: 35 euro. Pegora. Epea: **Martxoak 28**.

'Nork zaintzen du zaintzailea?'

Irakaslea: Pepa Bojó (Emakumeentzako Jabetze Eskola). Noiz: **Apirilaren 3tik ekainaren 12ra, eguenetan**, txanda bitan (15.00-17.00 eta 17.30-19.30). Non: Andretxean (Zezenbide, 9 behe). Matrikula: 15 euro (erdi-prezioan langabetuentzat). Pegoran. Epea: **Martxoak 31**.

Gurasoak Martxan

'Curso de habilidades para la vida', Hilario Garrudo psikologoarekin. Norentzat: 12-16 urteko seme-alabak dituzten guraso edo arduradunentzat. Noiz: **Apirilak 17 eta 24 eta maiatzak 6**, 18.00etan Portalean. Matrikula: Doan. Pegoran. Epea: **Apirilak 11**.

Kzguneko mintegiak

Sinadura elektronikoa
 Noiz: **apirilak 10** (16-17); **apirilak 15** (11-12); **apirilak 25** (18-19) eta **apirilak 30** (11-12).
Banka elektronikoa
 Noiz: **apirilak 23 eta 24** (18-20).
Berehalako mezularitza (messenger)
 Noiz: **apirilak 28** (09-11).
 Non: Karmen kaleko KZgunean.

sarrerak salgai

ANTZERTIA

'Cruzadas cotidianas'. Martxoak 31, 20.30.

ZINEA

"Fast Food Nation". Apirilak 1, 21.30.

DOKUMENTALA

'S.D. Eibar. El documental'. Apirilak 4, 20.00. Apirilak 6, 19.00.

laster salgai

ZINEA

'El sueño de Casandra'. Apirilak 8, 21.30.

'Borrachera de poder'.

Apirilak 15, 21.30. 'Tener y no tener'. Apirilak 22, 21.30.

OPERA

'Carmen'. Apirilak 11, 20.30.

MUSIKA

Bilboko Txistulari Banda. Apirilak 12, 20.00.

ANTZERTIA

'Inalanbririkak'. Apirilak 19, 18.00.

DOKUMENTALA

'Tierra' (BBC). Apirilak 29, 21.30.

denborapasak

A A C A K O A F M V O O A G I
 R L E M E G K E Q J M T V D B
 A R B T A T N O H F A J N E E
 N A J E L D R M R R D E A N K
 G P T T A E V A R O M U N O A
 O I Q U B R B A D A F U Y I P
 I C R K R E M I R A C Z M D A
 T Y U P P E H R D C A C S N B
 I M A I H O U O F N K Y Q E L
 I D R A G R A K R X E T F H C
 A E T X K E V C Q L I M D A V
 V S B H T W Q S C G E G R R I
 E I R U I N A R R E T G Q R G
 I P R R W S O R D L M D I O S
 A T E I R R A G U M U R I G F


Aurkitu hemen Nafarroako 15 MENDI izen.

diru-laguntzak

UEUko matrikularako
 Zenbatekoa: Matrikularen erdia.
 Epea: **Maiatzaren 30era arte.**
 Non: Pegoran.

bestelakoak

Udalekuak 2008
 Izena-emateko epea: **martxoaren 31tik apirilaren 9ra** (7-13 urte bitarteko umeak) **eta apirilaren 17tik 25era** (14-17 urte bitarteko umeak).
 Informazioa:
www.gipuzkoa.net/oporraldi
 edo Gazte Informazio Bulegoan (Portalean).



Aurrekoaren SOLUZIOA

farmaziak

- 28. barixakua**
 GOIZEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
 GAUEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
- 29. zapatua**
 GOIZEZ **Larramendi** (Calbetón, 19)
 GAUEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
- 30. domeka**
 GOIZEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
 GAUEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
- 31. astelehena**
 GOIZEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
 GAUEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
- 1. martitzena**
 GOIZEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
 GAUEZ **Alberdi** (Zubiaurre, 9)
- 2. eguaztena**
 GOIZEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
 GAUEZ **Cortina** (Zubiaurre, 29)
- 3. eguena**
 GOIZEZ **Urizar** (J. Etxebarria, 7)
 GAUEZ **Alberdi** (Zubiaurre, 9)
- 4. barixakua**
 GOIZEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
 GAUEZ **Cortina** (Zubiaurre, 29)

hildakoak

- Luz Bustindui Otadui. 71 urte. 2008-III-16.
- Benito Vargas Chamorro. 76 urte. 2008-III-18.
- Concepción Bilbao Olabarria. 86 urte. 2008-III-19.
- Amparo López López. 83 urte. 2008-III-20.
- Emilia Eguren Bizkarguenaga. 76 urte. 2008-III-23.
- Josefa Arrieta Bergaretxe. 89 urte. 2008-III-26.

jaiotakoak

- Beñat Garate Amorrosta. 2008-III-7.
- Asier Ruiz Sánchez. 2008-III-10.
- Izar Gallastegi López. 2008-III-11.
- Iker Conde Bergaretxe. 2008-III-12.
- Alex Araujo Sánchez. 2008-III-16.
- Izaro Elejalde Rodríguez. 2008-III-16.
- Markel Arizmendi Arrizabalaga. 2008-III-17.
- Julia Arranz García. 2008-III-18.

zinemazinemazinemazinema



untzaga
"No es país para viejos"

ZUZENDARIA:
Ethan eta Joel Coen
 AKTOREAK:
Tommy Lee Jones, Josh Brolin, Javier Bardem, Woody Harrelson...

Llewelyn Mosse bi milioi dolar eta heroina aurkituko ditu kamioi batean. Hilotz mordoa dago kamioiaren inguruan, baina dirua eta heroina artesa erabakiko du. Baina pertsona horren hiltzaileak nahi du aurkitutakoa...



untzaga
"Fast food ration"

ZUZENDARIA:
Richard Linklater
 AKTOREAK:
Greg Kinnear, Patricia Arquette, Bobby Cannavale, Paul Dano...

Don Henderson zabor jana saltzen duten enpresa bateko ejekutiboa da. Euren saltzen duten okela kutsatuta dagoela jakingo du. Arazoa berehala konpontzea espero zuen, baina konponbidea uste baino askoz zailagoa izango da...

ETXEBIZITZAK

- Sorailuzeko Rabal kalean pisua salgai. 64 m². Logela bi, egongela, sukaldia eta komuna. Tel. 658-339709.
- Elgoibarko erdialdean pisua salgai. 136 m². Tel. 619-409273.
- Logela hartuko nuke alokairuan. Tel. 646-394857.
- Eibarren pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 679-720405. Jorge.

LOKALAK

- Eibarren garajea hartuko nuke alokairuan. Tel. 620-160303.
- Elgoibarko Sigma poligonoan pabilioiak salgai (200 eta 400 m²koak). Tel. 619-409273.
- Garajerako plaza alokagai. Eibarko zenitroan. Tel. 600-018668.
- Garaje irekia eta trasteroa salgai. Tel. 607-695054.

BESTELAKOAK

- Umeentzako mahai-tota aurkitu zen martxoaren 1ean San Andres parrokiaren parkean. Urdin kolorekoa. Tel. 679-358806.
- Urrezko pultsera aurkitu da Armagin kalean, Mari Carmen izenarekin. Tel. 943-208029.

SALEROSKETAK

- Yamaha 421D gitarra elektrikoak salgai. Seymour Duncan pastillekin. Tel. 665-732640. Aitor.
- Tokadore-oheta (0'90), sukaldariko mahai sei jarlekurekin eta ikasteko mahaiak salgai. Horrekin batera opariak. Deitu 19.00etatik 23.00etara. Tel. 665-741300.
- Jantokirako aintzinako mahai ederra eta aulkiak salgai. Tel. 665-729417.
- Autorako irratia salgai. Blaupunkt 300. Autoestore, RDS eta TP-rekin. Aurrezintonizatze 30 posizioekin. 150 euro. Tel. 943-203204.

AUTOAK

- Renault Traffic ekipatua salgai. Bidaitezko 5 plaza, 4 lo egiteko. Sukalde guttiz ekipatua, igo daitekeen sabaia, berogailu estatikoa eta jarleku giratorioak. Dutxa, tolo eta bizikletak eta eskiak eramatekoak. 75.000 km. 2003 urtekoa. Egoera onean. Tel. 658-710899 edo 685-725840.
- Karabana salgai. 7 metrokoa. Kalefakzio eta ur berogailua. Komuna, dutxa eta sukalde osoa. Kanpoan. Mutrikuko Santa Elena kanping-ean. Tel. 652-750361.
- Renault Scenic salgai. Egoera onean eta extra guztiekin. IAT pasatuta. 85.000 km. Tel. 607-230077.

ANIMALIAK

- Hilabete biko ehiza-txakurra oparitzen da. Tel. 943-120835.

LANA

- Kamarera behar da asteburuetarako. Tel. 943-121262.
- Neska eskaintzen da goizez etxea garbitu edo propaganda banatzeko. Tel. 690-791689.
- Neska eskaintzen da umeak eta nagusiak zaintzeko, eta baita garbiketatarako. Tel. 608-376387.
- Gizon euskalduna eskaintzen da nagusiak zaindu edo pasiatzeko. Tel. 652-766525.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketatarako. Esperientziaduna. Tel. 678-939382.
- Sukaldaria edo sukalde-laguntzailea behar da jatetxe baterako. Tel. 943-206868 eta 661-700440.
- Emakumea eskaintzen da orduka pertsonak zaintzeko (externa). Tel. 679-095634.
- Gizona eskaintzen da eraikuntzan peoi lanean aritzeko, baita pulimentuan ere. Tel. 943-530718 eta 605-363960.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko (interna). Tel. 943-530744 eta 645-359279. Nuri.
- Emakumea eskaintzen da garbiketa lanak egiteko eta josteko. Tel. 943-742201 eta 652-715908. Araceli.
- Emakumea behar da umeak zaintzeko. Esperientziaduna. Tel. 943-700400.
- Emakume euskalduna behar da umea zaintzeko. Tel. 615-756681.
- Emakume euskalduna behar da umeak zaindu eta etxeko lanetarako. Lanordua: goizez edo arratsaldez. Tel. 605-772606.
- Mutila eskaintzen da edozein lanerako. Tel. 626-536566.
- Neska eskaintzen da umeak eta nagusiak zaindu, etxeko lanak egin eta garbiketatarako. Tel. 626-536566.
- Neska eskaintzen da umeak eta nagusiak zaindu, etxeko lanak egin eta garbiketatarako. Tel. 620-336722.
- Emakumea eskaintzen da orduka umeak edo nagusiak zaindu eta etxeko lanetarako. Tel. 636-172765.
- Gizona eskaintzen da edozein lanerako. Tel. 646-594587.
- Gizona eskaintzen da edozein lanerako. Tel. 680-674323.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketeta lanetarako. Tel. 662-423898.
- Neska eskaintzen da arratsaldez nagusiak zaindu eta garbiketeta lanetarako. Tel. 666-815008.
- Neska eibartarra eskaintzen da orduka umeak zaintzeko. Tel. 626-566776. Nuria.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaindu eta edozein garbiketa lanak egiteko. Tel. 686-127137.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta bestelako lanetarako. Tel. 618-175692.
- Neska eskaintzen da umeak zaindu eta garbiketeta lanetarako. Tel. 662-365609.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko, baita ospitalean ere. Tel. 649-313548.
- Neska eskaintzen da umeak zaindu eta garbiketeta lanetarako. Tel. 626-061112.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketeta lanetarako. Tel. 690-080040.
- Emakumea eskaintzen da goizez umeak zaindu eta etxeko lanetarako. Tel. 680-463892.
- Neska eskaintzen da arratsaldez edo gauz nagusiak edo umeak zaindu eta etxeko lanetarako. Tel. 638-420860.
- Neska eskaintzen da arratsaldez edo asteburuetan nagusiak zaindu eta etxeko lanetarako. Tel. 646-821678.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta etxeko garbiketatarako. Tel. 626-865691.
- Neska eskaintzen da edozein lanerako. Tel. 627-713467.
- Neska arduratsua eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 630-006792.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketeta lanetarako. Tel. 686-265293.
- Sukalde-laguntzailea eta kamarera behar dira. Tel. 943-121262.
- Sukaldaria behar da pintxoak, ogitarteak eta kazuelitak egiteko. Tel. 610-619421. Rakel.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 639-240038.
- Mutila eskaintzen da edozein lanerako. Tel. 680-250527.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketeta lanetarako. 09.30etatik 16.00ak arte. Tel. 680-250527.
- Emakumea eskaintzen da orduka nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 638-233739.
- Escuderia Eibar-ek prentsa kolaboratzailea behar du. Kontakturako: escuderia_eibar@hotmail.com
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 671-742142.

Iragarkiak ipintzeko:
943-200918 (Marisol).

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauetako **PREZIOAK** honakoak dira: **Etxeak, lokalak, garajeak:** alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro.
Autoak: 10 euro.
Doaneko iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez.

...eta musu bat zuretako

Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobe eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 3 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena (bikoteak...) 6 euro. Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.



Zorionak, ANE Azpiri Alegria, atzo urte bi egin zenittualako. Muxu bat famelixaren partez.



Zorionak, MARKEL eta OIHANE, domekan eta eguaztenian 9 eta 4 urte bete dittuzuelako. Muxu haundi bat famelixaren partez

ZEZEN BIDE AUTO ESKOLA



Auto, autobus, kamioi eta motorrentzako gida-baimenak Teorikako irakaslea egun osoan



GIDA-BAIMENAK

Ego Gain, 4 - behea

(San Andres pasealekutik)

Tel. 943 20 34 45

EIBAR

ZEZEN BIDE



AUTO ESKOLA

Inoiz ez da azkarregi heziketak onena jasotzeko.

Eren urte bako gehiagoko gutxiago Eibariko heziketan erreferentzia izan da. Gure irguriko beharrei erantzuten, garatuz eta prestatuz, hizkuntza, teknologia berriak, EROM... - izan dira eta aldi orain dit gure kasuen oinarriak.

ATEAK ZABALIK

Apirilak 5
larunbata

11.00etatik
13.00etara



- 1 HEZIKETA INTEGRALA ETA KALITATEKORAKI KRISTU HUMANISMOA DINTZARUTUA
- 2 ALDATZE HEZIKETAKO AGENDEA OSO BAI HEZTEN
- 3 GIBELAKO HEZIKETAKO AGENDEA OSO BAI HEZTEN
- 4 BERTUTIK IZARRA IZARRAKO HEZIKETA HEZIKETA
- 5 AZNOR 15 HEZIKETAN SEKULARIZATZEKO FROGA KIN OSO GAIKIDITU DINTZARUTUA
- 6 IRASLE DINTZARUTUA JARRI FERRA
- 7 ESKOLAKO ETA LANEN DINTZARUTUA BATERAGARRI DITENKO ZORITZU DINTZARUTUA

aldatze



ALDATZE

Collage Santa Maria de la Trinidad

ALDATZE ARCA 3 - 48001 - IZURDIO
TEL: 943 79 11 30 - 943 20 34 45

Euskal Eskola Publikoa

Urtez urte
hazten dira.
**Baita euren
eskola ere.**

*Elkartzaren bidez prestakuntza
Ezagutzaren teknologiaz
Elkarlanean
Ikaslearen Integrazioa*

AMAÑA

943 20 72 50

ARRATEKO ANDRA MARI

943 20 72 35

J.A. MOGEL IKASTOLA

943 20 84 87

SAN ANDRES

943 20 79 95

URKIZU

943 12 17 78

ITZIO D.B.H.

943 70 22 89

MOGEL ISASI D.B.H.

943 20 30 94

Aurrematrikulak:
Martxoaren 31tik
apirilaren 11ra

**2008
2009
IKASTURTEA**

HAUR, LEHEN ETA
DERRIGORREZKO
BIGARREN
HEZKUNTZAKO
IKASTETXEETAN

Euskal Eskola Publikoa:
Hobea egin du ballabideetan,
berrikuntzan eta kalitatean



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

HEKUNTZA LANBIDEETAN
ETA IKASLEEN BAZAIA

baikara
Euzkoaren Nazioan
Gurasoen Federazioa